

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BILBON PROSTITUZIOAN ARITZEN DIREN
EMAKUMEAK.**

Emakumeen egoera hobetzeko esku-hartze proposamena.

Gradu Amaierako Lana

KRIMINOLOGIA GRADUA

2021-2022 IKASTURTEA

EGILEA: Idoia Díez Santorcuato

ZUZENDARIA: Juan Aldaz Arregui

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honen bidez, Bilbon prostituzioan aritzen diren emakumeen egoerari buruzko azterketa bat egin nahi da, jasaten duten indarkeria ardatz hartuta, haien egoera nola hobetu bilatzeko. Horretarako, prostituzioaren fenomenoaren osatzen duten hainbat alderditan sakondu da (sexualitatea, interseksionalitatea, arauak, etab.), eta, gainera, Bilboko bi elkartek parte hartu dute, Askabide eta Ahizpa Oblatak, elkarrizketen bitartez. Bi elkarteek gertutik ezagutzen dute emakume horien errealitatea, eta, gainera, oso tresna baliagarriak dira emakumeen egoera hobera joan dadin. Literatura zientifikoan nahiz elkarteetako profesionalen laguntzarekin jasotako informazioarekin, prostituzioan aritzen diren emakumeekin aurrera eramateko esku-hartze proiektu bat proposatzen da, emakumeek bizi duten indarkeria-egoera, bai emakumeak eta baita gizartea kontzientziatzea helburu duena, haien bizi egoera hobetzearekin batera.

HITZ-GAKOAK: prostituzioa, emakumeak, indarkeria, esku-hartzea.

RESUMEN

Con este Trabajo de Fin de Grado se pretende realizar un análisis sobre la situación de las mujeres que ejercen la prostitución en Bilbao, centrándose en la violencia que sufren, para buscar cómo mejorar su situación. Para ello, se ha profundizado en los diferentes aspectos que conforman el fenómeno de la prostitución (sexualidad, interseccionalidad, normas, etc.) y, además, han participado dos asociaciones de Bilbao, Askabide y Hermanas Oblatas, a través de entrevistas. Ambas asociaciones conocen de cerca la realidad de estas mujeres y, además, son una herramienta muy útil para que la situación de las mujeres vaya a mejor. Con la información recibida tanto en la literatura científica como con el apoyo de profesionales de las asociaciones, se propone un proyecto de intervención con mujeres que ejercen la prostitución, con el objetivo de concienciar a las mujeres y a la sociedad sobre la situación de violencia que viven y mejorar su situación vital.

PALABRAS CLAVE: prostitución, mujeres, violencia, intervención.

ABSTRACT

The aim of this End of Degree Project is to carry out an analysis of the situation of women engaged in prostitution in Bilbao, focusing on the violence they suffer, in order to find ways to improve their situation. To this end, the various aspects of the phenomenon of prostitution (sexuality, intersectionality, rules and laws, etc.) have been deepened, and two associations in Bilbao, Askabide and Sister Oblata, have participated through interviews. Both associations are closely aware of the reality of these women and are also a very useful tool for improving their situation. With information both in scientific literature and in collaboration with professionals from associations, an intervention project is proposed to address the situation of violence against women in prostitution, with the aim of raising awareness among women and society, while improving their living conditions.

KEY WORDS: prostitution, women, violence, intervention.

AURKIBIDEA

SARRERA	6
A) MARKO TEORIKOA	9
1. PROSTITUZIOA	9
1.1. Mundu mailako fenomenoa	9
1.2. Espainia mailan	10
1.3. Euskal Autonomia Erkidegoko prostituzioa	13
2. MUGIMENDU SOZIALAK	15
2.1. Feminismoa	15
2.1.1. Eredu abolizionista	16
2.1.2. Eredu legeztatzailea	17
2.2. Euskal Herriko Prostituzioa XIX.mendetik	18
2.3. Bilboko elkarte eta aktibistak	19
3. INTERSEKZIONALITATEA	25
3.1. Prostituzioa interseksionala da	25
3.2. Generoa	26
3.3. Etnia	27
3.4. Maila soziala / egoera sozioekonomikoa	28
4. SEXUALITATEA	30
5. INDARKERIA	33
5.1. Indarkeria motak: Galtungen Triangeluaren arabera	33
5.1.1. Zuzeneko indarkeria	34
5.1.2. Egiturazko indarkeria	35
5.1.3. Indarkeria sinbolikoa	35
5.2. Prostituzioan aritzen diren emakumeek pairatzen duten indarkeria	36
6. ARAUDIA	42
6.1. Espainia mailako araudia	42
6.2. Bilbo hiriko araudia	45
B) ALDE PRAKTIKOA	47
1. AURKEZPENA	47
2. ERAKUNDEAK: ASKABIDE ETA AHIZPA OBLATAK	49
a. Elkarteen sorrera	49
b. Gaur egungo lana	51
c. Etorkezunean	53
3. BILBOKO PROSTITUZIOA	53
a. Emakumeak: profila eta egoera	54
b. Pairatzen duten indarkeria eta erakundeen lana honen aurrean	57

c. Gizartearen eta poliziaren ikuspuntua	59
d. Egoera idilikoa	60
C) ESKU-HARTZE PROPOSAMENA	62
1. SARRERA	62
2. JUSTIFIKAZIOA	64
3. HARTZAILEAK	65
4. DENBORA	65
5. HELBURUAK	66
6. METODOLOGIA	67
7. JARDUERAK	67
8. BALIABIDEAK	74
9. EBALUAKETA	74
ONDORIOAK	75
BIBLIOGRAFIA	79
ERANSKINAK	85
TXOSTEN EXEKUTIBOA	105

SARRERA

Lan honetan, prostituzioan aritzen diren emakumeen egoera, hauek pairatzen duten indarkerian bereziki funtsatuz, ezagutzea eta erakundeek horren aurrean egiten dutena ikustea bilatzen da, konkretuki, Bilboko hirian oinarrituta. Alde batetik, emakumeek jasaten duten indarkeria aztertu nahi da, prostituzioan aritzen direnen errealitatea berdina den, indarkeria mota ezberdinak jasaten dituzten, ekidin daitekeen zerbait den, hala, aitzitik, prostituzioari atxikita doan ezaugarri bat den jakiteko. Bestalde, Bilbon prostituzioan aritzen diren emakumeekin jarduten duten erakundeek zer nolako lana egiten duten, eta, indarkeria horren aurrean, haien erantzuna ikuskatzea bilatzen da. Hain zuzen ere, informazio horrekin esku-hartze proposamen bat ematea da lanaren oinarritzko helburua.

Prostituzioa, mundu osoan zehar existitzen den fenomeno da, eta ez hori bakarrik, historian zehar gizarte ezberdinetan eman izan dena. Gaur egun, munduko herrialdeen artean dagoen komunikazio maila, inoiz baino handiagoa da. Ez bakarrik garai honetako teknologiagatik, edozein unetan planetako edozein lekurekin konektatuta egoteko aukera ematen duela, baita ere, herrialde batetik bestera bidaiatzeko dagoen erraztasun eta, batez ere, abiaduragatik. Izan ere, gaur egungo garraioak inoiz baino azkarragoak dira, eta orain dela urte batzuk egun batzuetan egin beharreko bidaiak, ordu batzuetan egiteko aukera ematen dute.

Prostituzioaren gaira bueltatuz, globalizazioak inoiz baino gehiago zabaldu du fenomeno hori, bereziki trata kasuetan, zeinetan emakumeen salerosketa herrialdeen artean gertatzea erreztu duen, emakumezkoen trafikoa, hau da, emakumeak herrialde batetik bestera mugitzea, handituz. Hau da, ez da soilik prostituzioa herrialde guztietan ematen dela, badago horien arteko merkatu bat, non eskaintza emakumeak diren.

Esan bezala, mundu mailako fenomeno da, mundu osoan zehar ematen dena, eta beraz, ezaguna dena, baina, hala eta guztiz ere, ez da agenda politikoetan azaltzen, ezta egunerokotasunean, gizarte mailan, hitz egiten edo eztabaidatzen. Leku guztietan gertatzen den eta jende gehienak ezagutzen duen zerbait izan arren, alde batera uzten da, existituko ez balitz bezala. Lan honen helburuetako bat, bada, ondorioz, prostituzioa lehen plano batera ekartzea eta honi buruz hitz egitea, emakume hauen errealitatea foko azpian jarritz.

Hain zuzen ere, isiltasun horren biktima zuzenak prostitutak izaten dira, haien existentzia ezagutu arren, ez baitago haien errealitateenganako interesik. Ezin da ezeztu, prostituzioan aritzen diren emakumeak gutxiengo bat direla, erreprimituak eta baztertuak izaten direnak gizartearen aldetik.

Jasaten duten indarkeria aztertzeko interesari dagokionez, berriz ere, honen inguruan dagoen ezjakintasunagatik dator. Gai honetan murgiltzeko beste arrazoi bat, prostituzioan aritzen diren emakumeek indarkeria sufritzen dutela egizat jotza, jasaten duten biolentzia zer motakoa den, edo diren, eta nola eragiten duen emakumeen bizitzan ezagutzea da. Soilik isildutako gutxiengoa izateagatik esan daiteke indarkeria jasaten dutela, baina, gainera, jakin nahi da haien lanean indarkeria ere jasaten duten, eta, batez ere, hura isilarazteko zergatia aztertu nahi da. Lan honen helburuetako bat, esan bezala, gizarteak bizkarra ematen dion errealitate bati buruz hitz egitea da, emakume horiek jasandako indarkeriarekin gauza bera gertatzen denez, lan honen bidez ikusgarritasuna eman nahi zaie.

Agerikoa denez, lan honek prostituzioan aritzen diren emakumeak ditu ardatz, prostituzioan aritzen diren gizonak alde batera utzita. Izan ere, gizon horien existentzia ezagutu arren, bi arrazoiengatik erabaki da, oraingo honetan, emakumeak soilik kontuan hartzea:

Lehenik eta behin, jarraian aipatuko den bezala, lan honen alde praktikoa prostituzioan aritzen diren emakumeekin lan egiten duten hainbat elkarteri egindako elkarrizketek osatzen dute. Beraz, gizonei buruz ere hitz egingo balitz, ezin izango litzateke Bilbon duten errealitatea behar bezala aztertu, hori lan honen helburu nagusietako bat izanik.

Bigarrenik, gizonen eta emakumeen errealitatea oso desberdina da, ez bakarrik prostituzioaren esparruan. Horregatik, emakumeen errealitateaz soilik hitz egitea erabaki da, prostituzio-egoeran dauden pertsona gehienak emakumezkoak baitira. Azken finean, sistema patriarkal batean bizi gara, non ez dagoen berdintasunik gizonen eta emakumeen artean. Azken horiek dira zapalduenak, eta prekariedade-egoeretan, prostituzioan adibidez, zapalkuntza hori areagotu egiten da.

Horrez gain, elkarteak aipatu behar dira, lan honen alde garrantzitsua baitira. Prostituzio-egoeran dauden emakumeekin lan egiten duten elkarteek harreman zuzena

dute haiekin. Gainera, datu interesgarriak dituzte errealitate horretara gehiago hurbiltzeko, eta, jakina, sektorean esperientzia nahikoa haien esperientzia kontuan hartzeko. Prostituzioa lehen pertsonan bizi ez arren, oso gertuko posiziotik egiten dute, harreman etengabea hala egiten duten emakumeekin. Horregatik, lan hau egiteko aukerarik onena bezala hartu dira.

Lana Bilbon zentratzeko hautua azterketa-eremua kokatu nahi izatetik dator, azterketa sakonagoa egin ahal izateko. Prostituzioa oso errealitate aldakorra da, eta hala dira, ondorioz, prostituzioan aritzen diren emakumeekin lan egiten duten erakundeak edo elkarteak ere. Bilboko hiriak, gainera, harreman estua du prostituzioarekin. Izan ere, XX. mendean, batez ere bigarren erdian, Las Cortes auzoa klub ugariengatik izan zen ezaguna, nahiz eta hiriaren erdigunean egon. Beraz, prostituzioa, Bilboren errealitatea izan da, eta oraindik bada ere, orain era ezberdinetan ematen den arren.

Esandakoa kontuan hartuta, lan hau, prostituzioari eta prostituzioan aritzen diren emakumeei ikusgarritasuna ematera zuzenduta egoteaz gain, Bilboko hiriko prostituzioa ezagutzera, han ematen diren indarkeriak aztertzea eta prostituzioan aritzen diren emakumeekin lan egiten duten erakundeen papera zein den ezagutzera bideratuta dago. Baina, hori, hasieran esan bezala, esku-hartze proiektu edo proposamen bat gauzatzera bideratuta dago; izan ere, hori da lan honen jomuga: prostituzioan aritzen diren emakumeen egoera hobetzea (edo hobetzeko proposamenak ematea) bai marko teorikoan bai, erakundeen bidez ezagutuko den, praktikan oinarrituta.

A). MARKO TEORIKOA

1. PROSTITUZIOA

1.1. Mundu mailako fenomeno

Prostituzioa mundu mailan ematen den praktika da, momentu historiko edota lekuaren arabera, ezberdin eman ahal dena (Bedia, 2016). Indibidualki aurrera eramaten den jarduera izan arren, prostituzioa fenomeno sozial bat kontsideratzen da, gizartean duen eraginagatik. Hitzaren jatorri etimologikoa bera, prostituzioa "prostituere" latinezko ahotsetik dator, "Salmentarako erakutsi" esan nahi duena, presentziaren eta eskaintzaren dimentsio publikoa, pribatuarekin, kontratazioaren edo zerbitzuaren erosketaren esparruari dagokionez, bateratzen duena (Emakunde, 2007).

Aspalditik munduko gizarte ezberdinetan eman den praktika sozial honek aldaketa ugari jasan ditu, horietako asko azken urteetan (Bedia, 2016). Hala ere, oinarrian berdin jarraitzen du, hau da, bezero deituriko horiek dirua ordaintzen dute prostituzioan aritzen direnak haiekin sexu-harremanak izateko. Ez dira aldatu, ezta ere, prostituzioaren kontzeptua definitzerakoan, definizio horrek hartzen dituen konnotazio negatiboak, eta horiek sortzen dituzten zailtasunak (Emakunde, 2007), izan ere, aurreiritziz josia dagoen gaia da, gizartearen bigarren plano batean ematen dena.

Horren froga argia prostituzioaren inguruan falta den informazioa eta, batez ere, datuak dira. Sexu-esplotaziorako salerosketarekin gertatzen den bezala, fenomeno horren zifra beltza bereziki handia da (Linde, 2012). Kriminologian, zifra beltza azaltzeko iceberg baten irudia erakusten da, ikusezinak diren praktikak agerian dauden gutxi horiekin konparatzeko, ikusezinak, ur azpian dagoen izotz zati handia izanik (Córdoba, 2021). Hori da prostituzioarekin gertatzen dena, ikusi daitekeena ez dela errealitatearen erakusgarri. Informazio falta horren arrazoi dira kontzeptua era bateratuan definitzeko eta horri buruzko datuak lortzeko dauden zailtasunak. Nazio Batuak egindako ikerketa batek dioenez, urtero munduan lau millioi pertsona inguru prostituitzen dira, zazpi bilioi dolar-eko etekina lortzen da (Matés, María, Pérez Freire, Gómez Suárez, 2015).

Azken urteetan, prostituzioaren praktika nabarmenki hazi da mundu mailan (Ranea-Triviño, 2019). Hazkunde hau globalizazio prozesuak ekarri du, mundu mailan

prostituzioa milloika euro mugitzen dituen industria globala izatea eragin duelako, sektore garrantzitsuenetariko batean bihurtuz, izan ere, herrialde batetik bestera bidaiatzeko dauden erreztasunak, prostituzioaren hedapena ekarri dute. (Bedia, 2016)

Fenomenoaren azalpenarekin bukatzeko, ezinbestekoa da pertsonen tratari buruz hitz egitea. Delitu horren adierazpen klasikoak dira emakumeen sexu-esplotaziorako salerosketa, edo legez kanpoko edo behartutako enpleguetarako langileen salerosketa (Linde, 2012).

Fenomeno honek eboluzionatu egin du, eta pertsonen salerosketa egileentzat praktika globalizatua eta oso errentagarria dela baieztatu ahal izan du. Izan ere, emakumeen sexu-esplotaziorako trafikoa irabazi-asmorik handieneko bigarren delitutzat jotzen da, drogen aurretik eta armen trafikoak soilik gaindituta. (Linde, 2012)

Jarduera horren aurka borrokatzeko arazoak agerikoak dira, hain zuzen ere, horren aurka joatea zaildu egiten dute esplotatutako pertsonen ageriko adostasunak, salatzen duten gutxiespenak edo haien kalteberatasun-egoerak; izan ere, batzuetan salerosketa-sarera jotzen dutenak haien baitira, emigratu ahal izateko horietara jotzen dutenak. Nolanahi ere, emakumeek beren lan-eskubideak edo oinarrizko eskubideak galtzen dituzte, beren borondatearen aurka lanean jarraitzen baitute edo prostituzioan aritzera behartzen baitituzte. (Linde, 2012)

Esplotazio sexuala helburu duen trata hain dago harremanean prostituzioarekin, askotan bateratu egiten direla, bi kontzeptuak nahasiz (Blázquez-Vilaplana, 2017). Lan hau, prostituzioaren fenomenoan oinarrituko da, tratarekin duen harremana kontuan hartuz, baina fokoa horretan mantenduz.

1.2. Espainia mailan

Espanian, prostituzioari dagokionez, diruaren truke sexu harremanak mantentzean datzan jarduera bezala definitzen da Espainiako Akademia Errealean ("Real Academia Española, RAE"). Mundu mailan bezala, Espainian ere, hazkundera ikusi da fenomeno honetan, baita ere trafiko eta tratatzen, globalizazioari esker, izan duten hedapenak bultzatuta (APRAMP, 2005). Save the Children eta Pertsonen Salerosketaren aurkako Espainiako Sarearen datuen arabera, urtero 40.000 eta 50.000 emakume eta

neska artean ekartzen dituzte Espainiara trafikatuak izateko, erakunde horien arabera espainiar herrialdean eskaria oso handia delako (Matés, et al., 2015).

Prostituzioan zentratuz, aurkitu daitezken datuei erreparatuta, 2007an *Espainiako Gobernuko Diputatuen Kongresuko Emakumeen Eskubideen eta Aukera Berdintasunaren Batzorde Mistoak* egindako ikerketa batean, ikusi zen, Espainia mailan, prostituzioan aritzen diren 300.000 emakume existitzen direla, gehienak pobreak, immigranteak eta dokumentu gabeak izanik, eta bezeroen %99,7a gizonezkoak zirela (Matés, et al., 2015), mundu mailako prostituzioaren antzera, oferta eta demanda subjektuei dagokienez. Hala ere, zifra horrek alde batera uzten ditu prostituzioan aritzen diren bestelako subjektuak, hala nola, gizonezkoak edota transexualak (APRAMP, 2005). Aurretik aipatutako ikerketa horrek dioenez, urtero 18.000 milioi euro sortzen dira estatu mailan eta espainolen eguneroko gastua 50 milioi eurokoa izanik, bestelako herrialde batzuekin konparatuta kantitate oso altua suposatuz (Matés, et al, 2015).

Prostituzioa kontsumitzen dutenen gizonezkoen profilaria buruzko ideia bat edukitzeko, Matés, et al.-ek (2015) egindako ikerketa batean, lau taldetan banatu zituzten bezeroak: bezero misoginoa, prostituzioa da sexu-harremanak izateko aurkitzen duen era bakarra; bezero kontsumitzailea, hau gizon gaztea izaten da, diskurtso ez-sexista duena, eta uste du bai gizonek eta bai emakumeek beren harremanetan bakarrik sexua bilatzen dutela; bezero laguna, honek jarrera atsegina eta aitatasunezkoa hartzen du ordainpeko sexuaren aurrean; azkenik, bezero kritikoa, ohikoa ez dena, honek emakumeek gizartean jasaten dituzten genero-desberdintasunak eta bidegabekeriak onartzen ditu. (Matés, et al., 2015)

Fenomeno honi buruz hitz egiterakoan burura datozen lehenengo parte hartzaileak prostitutak izaten dira, normalean emakume baten irudia izaten dena, aldiz, ezin dira ahaztu lehen aipatutako bezeroak, bezerorik gabe prostituzioa ez litzakeelako existituko (Matés, et al., 2015), ezta proxenetak ere, hauek baitira, behintzat ekonomikoki, etekin handiena lortzen dutenak baina ezkutuen geratzen direnak. APRAMP (2005) elkarteak azaltzen duenez, proxenetak prostituten lanari esker bizi direnak dira, zenbait erraztasunen truke, prostituten etekinen zati batekin geratzen direlako.

Bezeroaren figurarekin jarraituz, prostituzioaren kontsumoari dagokionez, 1990eko hamarkadaren amaieran Europako hamaika herrialdetan egindako ikerketa

baten arabera, Espainian hamar gizonetik lauk ordainpeko sexu-harremanak izan zituzten noizbait, eta horrek Europako lehen postuan jarri zuen Espainia (Hubert et al. 1998). Espainiako erakunde ofizialek egindako ikerketetan ere egiaztatu da sexu-kontsumo handia dagoela prostituzio-testuinguruetan. Zehazki, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) eta Osasun eta Kontsumo Ministerioak egindako inkesta batean adierazten denez, 2003. urtean, Espainiako gizonen % 27,3k ordaindu zuten noizbait prostituzio-zerbitzuengatik (INE 2004). Ondoren, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) egindako azterlan batean adierazten denez, 2008an, 16 urtetik gorako gizonezko espainiarren % 32,1ek erabili zuen noizbait ordainpeko sexua (CIS 2009).

Trata delituari dagokionez, Espainia zirkulazio herrialde bihurtu da, eta baita emakume eta neskak erakartzeko eta esplotatzeko herrialde ere. Gaur egun, lurraldean ematen den fenomeno horri dagokionez, lehen tokietan aurkitzen da. Baina, gainera, lehen postuetan dago baita ere prostituzioaren kontsumoa, tratarekin lotu gabe, aztertzen duten eskaletan. Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) datuen arabera, prostituzioa Barne Produktu Gordinaren % 0.35 da Espainian, urtean 3 700 milioi euro inguru. (Blázquez-Vilaplana, 2017)

Prostituzioarekin duen lotura estuak, mafiek eta tratulari-sareek esplotatzen dituzten pertsonen kopurua kuantifikatzeko zailtasunak eta, kasu askotan, salerosketaren gaia legez kanpoko pertsonen trafikoarekin batera jorratzeak, Espainia fenomeno horren paradisu gisa katalogatzea ekarri du nazioartean. Datuek diotenez, Europako herrialdeekin konparatuta, Espainia da esplotazio sexualeko kasu gehien antzeman diren herrialdea. Alde batetik, prostituzioaren aurrean hartzen duen jarreragatik, Espainian hori alegala baita, eta, beraz, proxeneta zigortzen duelako soilik, baldin eta hala dela frogata badaiteke, eta ez ditu zigortzen ez bezeroa ezta prostituta. Bestalde, eskariagatik, Espainiako gizartean gaur egun ere ohiko aisialdia kontsideratzen baita. (Blázquez-Vilaplana, 2017)

Egungo testuinguru pandemikoan, etxeko konfinamendua, segurtasun-distantzia, aisialdiko espazioetako pilaketan amaiera eta abar inflexio-puntu bat suposatu dute giza harremanetan. Hala ere, inplikaturako pertsonen osasunerako eta bizitzarako ageriko arriskua egon arren, Espainian prostituzio-eskaria ez zen eten. (Gómez Suárez eta Verdugo Matés, 2021)

Alarma-egoera martxan jartzeak, konfinamenduak eta negozioetan edukiera murrizteak gizarte-harremanak aldatu zituzten. Hala, gizonen soziabilitate-patroiek, hala nola enpresa-afariek, ezkongabeen agurrek edo azken kopak – askotan gaueko klubetan amaitzen zirenak –, murrizketa nabarmena izan dute, eta horrek murriztu egin du lokal horietako sexu komertzialaren talde-kontsumoa. Nolanahi ere, industria sexualak kontrolatzen dituen pisu partikularretako ordainpeko sexuaren kontsumo indibidualizatuak gora egin duela antzeman da. (Gómez Suárez eta Verdugo Matés, 2021)

Gómez Suárez eta Verdugo Matés-ek (2021) diotenez, konfinamenduak batez ere prostituzioan aritzen diren emakumeengan izan du inpaktua. Izan ere, emakume horien kalteberatasuna eta esplotazioa areagotu egin da. Emakume horiek elikagai- eta bizitegi-premia larriko egoerak pairatu dituzte, eta, aldi berean, tratulariekin, proxenetekin eta esplotatzaileekin zituzten zorrak handitzen ikusi dituzte; ondorioz, garai goiztiarretan inoiz onartuko ez zituzten bezeroekin praktikak onartu behar izan dituzte. (Gómez Suárez eta Verdugo Matés, 2021)

Mundua astintzen ari den pandemian, ikusi ahal izan da Espainian – Sexu komertzialaren Europako lehen herrialde kontsumitzailea- industria sexuala gune diskretuagoetara eta klandestinitate handiagokoetara itzuli dela, ordainpeko sexua eskaintzen jarraitzeko. Egia da jarduera-bolumenak nabarmen egin zuela behera, baina, era berean, ukazina da horrelako zerbitzuen eskaria bi bide nagusiren bidez bideratu dela: batetik, mainstream pornografiaren eta porno-prostituzioaren kontsumo intentsiboa, eta, bestetik, jai pribatuak antolatzea eta eskaintza zabaltzea sexu-industriaren kontrolpeko pisuetatik. (Gómez Suárez eta Verdugo Matés, 2021)

1.3. Euskal Autonomia Erkidegoko prostituzioa

EAEko emakumeek prostituzioan aritzeari dagokionez, lehen datu aipagarria da fenomeno hori EAEko udalerrien %10ean dagoela, bertan ematen diren edozein modaliteri erreparatzen bazaio, hauek kaleko prostituzioa, klubetako eta pisuetakoa direlarik. (EMAKUNDE, 2007)

Emakumeen prostituzioaren fenomenoak dagoen udalerrien lurralde-banaketari erreparatzen bazaio, ikus daiteke Bizkaia dela fenomenoaren edozein modalitatetan presente dagoen udalerrien proportzio handiena biltzen duen Lurralde Historikoa (%52),

bai eta jarduteko modalitate zehatz bakoitza ere. Bizkaian daude kalean egiten diren udalerrien %67a, klubetan egiten diren udalerrien %52a eta pisuetan egiten diren udalerrien %45a. (EMAKUNDE, 2007)

Gainerako lurralde historikoei dagokienez, Gipuzkoak, Bizkaiak bezala, pisuetan lan egiten duten udalerrien % 45 biltzen du, eta ez du kaleko prostituzioa detektatu duen udalerririk. Bestalde, Arabak ez du horri buruzko datu bereziki aipagarririk erregistratzen, baina kontuan izan behar da Bizkaiak EAEko udalerrien % 45 biltzen dituela, Gipuzkoan % 35 eta Araban % 20. (EMAKUNDE, 2007)

EAEEn prostituzioan aritzen diren emakumeen kopuruari dagokionez, nabarmentzekoa da jarduera-modalitate hedatuena klubetan prostituzioa dela, prostituzioan aritzen diren emakumeen % 66 biltzen baititu. Bestalde, ia herenak (% 31) pisuetan egiten du lan. Gainera, gainerako modalitateekin alderatuta, kalean lan egiten duten emakumeen proportzioa (% 3) nabarmentzen da. Hau da, EAEEn ikusten da jarduera leku pribatuetan (klubetan edo pisuetan) kontzentratuta dagoela, eta prostituzioaren jardun publikoa oso txikia dela. (EMAKUNDE, 2007)

2007an EMAKUNDEk egindako ikerketarekin jarraituz, 2002 urtetik 2007 urtera bitartean bilakaera bat eman zen EAEko prostituzioan, funtsezko elementuak honako hauek zirelarik: prostituzioan aritzen diren emakumeen “atzerritaratasunerako” joera mantendu zen, praktika pribatizatzeko joera antzeman zen (pisuetan ematen baita gehien), emakume transexual eta trabesti gehiago ikusten hasi zen, lehen urratsak eman ziren alterneko klubetako enpresariaren antolakuntzan Estatu mailan, prostituzioan aritzen diren emakumeen kolektiboaren antolaketan eta aldarrikapenean urrats batzuk eman ziren eta araugintza-ekimen eta esku-hartze ugari garatu ziren udal, autonomia eta Estatu mailan.

2. MUGIMENDU SOZIALAK

2.1. Feminismoa

Feminismoa biak dira, mugimendua eta teoria iraultzailea. Feminismotzat hartzen da mugimendu sozial feministak garatutako politika praktikoen eta teoria sozialen multzoa, emakumeak menpean egotearen iraganeko eta oraingo harremanak kritikatzeko dituen eta harreman horiek amaitzeko eta gizartea eraldatzeko borrokatzen duena, gizartea bidezkoagoa izan dadin. Feministen helburua da emakumeen zapalkuntzaren arrazoiak aurkitzea, gaur egungo gizartean sexu-genero dinamikak ezagutaraztea eta emakumeek jasan behar dituzten kalteak gainditzeko erabil dezaketen ezagutza sortzea (Nicolás Lazo, G., 2007). Horregatik, prostituzioaren errealitateari ikuspegi feministatik heltzen zaio, lan honetan ikusiko den bezala.

Atal honetan, gai honi buruz dauden diskurtso ezberdinak arakatuko dira, oro har prostituzioaren araudiari lotutakoak. Izan ere, prostituzioari buruzko eztabaida sutsua izaten ari da, eta, bereziki, prostituzioaren erregulazioari buruzkoa. Jarraian, eztabaida horretan hartu diren jarreraren laburpen labur bat egin da. (Nicolás Lazo, G., 2007)

Prostituzioaren problematikak hainbat eztabaida dakar berekin, sexu-lan gisa arautu, debekatu eta zigortu edo gizarte-sistematik kendu behar ote den jakiteko (Daich, 2012). Esan bezala, prostituzioaren munduaren inguruan hainbat jarrera sortu dira historian zehar. Egileek erabilitako kategoriak beti bat ez badatoz ere, gehien erabiltzen direnak lau dira: erregelamentarismoa, abolizionismoa, debekukeria eta lan-eredua edo eredu legeztazailea (Boza Moreno, 2019).

Eredu horietako bakoitzaren oinarriak hainbat ikuspegi ideologikotan oinarritzen dira, laburki esanda, ondoriozta daiteke jarduera hori deabruzeko joera dagoela, jarduera hori berezko onura eta babesa dituen jardueratzat aitortzearen aurrean. Hori dela eta, bai eredu legeztazailea, bai eredu abolizionista, herrialde ezberdinetako, nazioarteko eta Europako, politika kriminalaren sistema onartuenak eta hedatuenak izan direla baieztatzen da. Hala ere, eta hasieran esan den bezala, bi eredu horiekin batera, beste batzuk ere badaude, legedi desberdinetan ere ikus daitezkeen arren, onarpen edo eragin bera izan ez dutenak. (Boza Moreno, 2019)

XIX. mendean entzun ziren lehen aldiz prostituzioaren aurkako ahotsak. Anarkistak, sozialistak eta feministak izan ziren agertu zirenak, emakumeen muturreko zapalkuntza modu bat zela uste baitzuten, horregatik sortu zuten diskurtso abolizionista. Baina, XX. mendeko azken hamarkadatik aurrera, LGTB eta queer mugimenduek erregulazioaren diskurtsoa defendatzen dute. Hortik aurrera, zatiketa handia gertatu zen feminismoaren barruan, bi talde handitan banatuz: erregulazionistak eta abolizionistak.(Delgado Rodríguez, 2014)

Prostituzioari buruzko hausnarketak arauzko horizontearen eta eraiki nahi den, eta etorkizuneko belaunaldiei utzi nahi zaien, munduaren ingurukoa izan behar du. Erabilera sexual edo ez-sexualerako erabili daitezkeen gorputzen merkatu baterako sarbide arautua normalizatuko den mundua eraiki nahi den. Prostituzioaren gai honetan gizakiaren kontzeptua bera dago jokoan, eta horri buruz eztabaidatu behar da ezagutzatik abiatuta, eta ez esaldi labur, eslogan eta topikoetatik. Horregatik, jarraian bi mugimendu hauen argudioak azaltzen dira laburki.(De Miguel Álvarez, 2012)

2.1.1. Eredu abolizionista

Eredu abolizionistak, Mariana Pucciarellok (2007) dioenez, prostituzioak mundu juridikoan inolako aitortzarik ez izatea aldarrikatzen du, jarduera desadoretzeko eta desagerrarazteko, pertsonen duintasunaren defentsarekin lotuta dago, ez du prostituitzen den pertsona zigortzen, baina bai bere sexu-esplotazioarekin etekina ateratzen duena.

Genero-ikuspegitik ere uler daiteke; izan ere, horren arabera, fenomeno hori emakumeek gauzatzen dute gehienbat, eta gizonak esplotazio-egoera bat jasaten du, bai eta genero-indarkeriaren adibide argi bat ere. Horren aurrean, jarduera hori egiten duena biktima da, eta halakotzat hartu behar da, abusuaren eta esplotazioaren aurrean babesa behar baitu. Horregatik, abolizionismotik praktika hori ezabatzea bilatzen da sektorearen askatasunarekin batera, sektore hori oinarrizko eskubideen aurkakoa delako. (Boza Moreno, 2019)

Ikuspegi horrekin jarraituz, gaur egungo testuinguruan, emakumeen gorputzen merkantilizazioa sustatzen da; izan ere, eskubide eta desio propioak dituzten subjektutzat hartu beharrean, besteen nahiak asetzeko eskuragarri dagoen gorputz-objektu gisa irudikatzen dira oraindik ere gizarte- eta kultura-mailan. Horri dagokionez, azpimarratu behar da prostituzioan dauden pertsona gehienak testuinguru

pobretuetako emakumeak direla, horietako asko etorkinak edo diskriminazio anitzak jasaten dituzten arrazializatuak. (Ranea-Triviño, 2021)

Planteamendu abolizionistak, berez, proiektu utopikoa du: prostituzioa desagerraraztea, justifikaziorik gabeko emakumeen eta gizonen irudi bereizia mantentzen eta errepikatzen duten praktika diskriminatzaile guztiak gizartetik ezabatzeko. Eta, gainera, eraldaketa-prozesu hori posible egingo duten hainbat neurri politiko, juridiko eta sozial ezartzea. Utopia sozial eta politikoaren garrantzia aldarrikatzea ezinbestekoa da gizabanakoen grina politikoa berreskuratzeko eta erakundeak gizartea eraldatzeko dinamizazio-elementu bihurtzeko. Utopiak oraindik existitzen ez dena, baina existitu daitekeena eta existitu behar dena irudikatzen du. (Castro, 2008)

2.1.2. Eredu legeztatzailea

Teoria erregulazionista feministaren oinarrizko argudioa gizabanako bakoitzak nahi duen ofizioa askatasunez aukeratzeko duen eskubidea da. (Tapia Ateka, 2017) Pentsatzen da, zapalkuntza-egitura edo errealtate material jakin batzuek baldintzatzen dutela lanbide batean edo bestean aritzeko erabaki oro. Edozein erabaki, ezinbestean eta hasteko, zapalkuntza-egiturek eta baldintza materialek baldintzatzen dute. Gainera, pertsona bakoitza zeharkatzen duten egituren eta elkargunearen arabera, erabaki bakoitzaren aukera gutxi gorabehera mugatua izango da. Nahiz eta ez den guztiz beharrezkoa aukeraz hitz egitea (inor ez baita aske), bai erabakiaz eta agentzia-gaitasunaz (Sanchez, 2017).

Prostitutak markatu dituen estigmatizazioa salatzen dute, eta baita gizartearen gaitzespenaren hipokresia. Horren inguruan dagoen moral bikoitza eta sexu-harremanei buruzko gai guztiak tratatzeko erabiltzen duten puritanismoa kritikatzeko dute, eta horregatik saiatzen dira frogatzen prostituzioa ez dela zerbait bekatuzkoa, ezta gaiztoa ere (Boza Moreno, 2019). Prostituzioa defendatzen dute, sexu-askatasunaren kontua dela argudiatuz, eta haren helburu nagusia normalizatzea eta lan gisa aitortzea da, eredu legeztatzaileak mantentzen duen bezala (Torpedo, 2006).

Bere ekarpena, ia bakarra esan genezake, prostituzioaren sexu-esplotaziorako salerosketa bereiztea da, eta, beraz, prostituzioan aritzen diren pertsonen oinarrizko

eskubideak aitortzea defendatzea, salerosketaren biktimei eskubide horiek aitortzeko eremu bereizi gisa. (Tapia Ateka, 2017)

2.2. Euskal Herriko Prostituzioa XIX.mendetik

Euskal Herrian prostituzioari dagokionez egon den jarrera aldatuz joan da. Guda Karlistaren ondoren, industrializazioaren aroa iritsi zen Euskal Herrira, eta horrek immigrazio-fluxu handia ekarri zuen. Hirira langile berriak iristearekin batera, Bilboko hainbat auzotan kokatutako prostituten kopuruak ere gora egin zuen, batez ere langileen auzoak okupatuz. (González García, S., 2006)

Prostitutak, gaitz sozialetan hartzen zirenak, beren garaikideen mespretxua jasan zuten, eta gizarteko bizitza batetik kanporatuak izan ziren, agintarientzat eta gainerako gizarte-taldeentzat eraginkorra izatea posible izan zen neurrian. (González García, S., 2006)

Gizartean bi jarrera-mota bereizgarri nabarmendu behar dira. Alde batetik, auzo eta kale beretan bizi izan ziren talde behartsuenak. Horiek modu guztietan saiatu ziren bereizten, argi eta garbi eta zalantzarik gabe, bizitza txarreko emakume haiengandik. Horren ordainetan, klase sozial ertain eta altuek prostitutekiko jarrera paternalista erakutsi zuten. Ulertu behar zen haiek lan-merkatu honetara sartu zirela beren bizitzako zorigaitzagatik. (González García, S., 2006)

XIX. mendeko Espainian, prostituzioa delinkuentziaren forma femeninotzat hartu zen, garai hartako azterketa mediko higienistetan babestuta (Lombroso buru zuen korrante medikoa); hala ere, beste pertsona batzuei kalte zuzenik eragiten ez zenez, moralki zuzena denaren aurkako delitutzat tipifikatuta geratu zen, eta prostitutak ziren eraso moral horren egileak. Fenomenoa kriminalizatzeko emakumeen kontrol sexuala ekarri zuen, bi kategoriatan banatuta: emazte-ama eta Prostituta. (Villa Camarma, E., 2010)

Mugimendu feministen sorrera eta Espainiako II. Errepublikan politika liberalaren garaipena funtsezkoak izan ziren, neurri handi batean, Espainiako lurraldean sexu-merkataritzaren erregulazioa zehazteko. Meretrizioaren munduarekin lotutako permisibitate horri esker, aldaketa ugari abiarazi ziren, batez ere legegintzan, publizitatean eta, batez ere, osasun-arloan. Erreforma berritzaileak, gizartean garrantzi

handia izan arren, ez zuten garapen luzerik izan, gobernu errepublikarraren iraupen laburra zela eta. (Ruiz, B. O., & Brouardelle, N., 2018)

Espainiako Gerra Zibilak II. Errepublikak bultzatutako gizon eta emakumeen arteko berdintasun proiektuaren amaiera ekarri zuen. Frankismoaren garaipenarekin nazionalkatolizismoak emakumea etxearen eta jaiotza-tasaren sinbolo eztabaida ezin bihurtu zuen, gizonaren autoritate totalitarioaren mende jarritz. (Ruiz, B. O., & Brouardelle, N., 2018)

Feminismoaren aurreko olatuek bezala, emakumearentzako oinarritzko eskubideen aitortpenaren bidez lortu diren hainbat helburu izan dituzte. Eskubide horiek, ia herenegun, eskuraezinak ziruditen, hala nola, hezkuntzarako eskubidea, botoa emateko eskubidea, ezkontide bien eskubide berak ezkontzaren barruan, dibortzioa, abortatzeko eskubidea, eta abar. Feminismoaren Laugarren Olatuak oinarri teorikoak ditu emakumeen aurkako indarkeria-moduen aurkako borrokan, baita prostituzioan ere. (Barriga, N. A., 2020)

Prostituzioa modu publikoagoan jorratzea feminismoaren laugarren olatura arte izan ez arren, XX. mendearen amaieran, Bilboko prostitutak lehen lerroan jarri zituen gertakari bat eman zen. 1977an, Bilbon, Basauriko espetxean prostituta bat hil ondoren, Bilboko prostitutak beren eskariak publiko egiteko antolatu ziren, eta, nolabait, ordu batzuetan gutxienez, mugimendu feminista baten hurbiltasuna eta elkartasuna aurkitu zuten. Prostituten greba deklaratu zen preso sozialen amnistia eskatzeko eta jende marjinal eta behartsuenari eragiten zioten lege frankistak indargabetzeko (Momoitio, A., 2022).

2.3. Bilboko elkarte eta aktibistak

Hainbat dira elkarte pribatu konfesional eta akonfesionalak, bai eta prostituzioaren esparruan lan egiten duten erakunde publikoak ere. (Berostegieta, M., & Alegría, J. M., 1990)

Gizarte-zerbitzuak "giza premia jakin batzuk asetzeko edo arintzeko antolatutako jarduera" gisa defini daitezkeela kontuan hartuta, prostitutei laguntzeko gizarte-zerbitzuak prostituten kolektiboaren beharrianak eta gabeziak asetzerantz bideratutakoak direla esan genezake. (Berostegieta, M., & Alegría, J. M., 1990)

Prostituta-jarduerak dakarren marjinazioaren ondorioz, asistentzia publikoaren barruan, emakume prostituten kasuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek edo funts publikoekin finantzaturako elkarteek tratatu dituzte. (Berostegieta, M., & Alegría, J. M., 1990)

Prostituzioaren fenomenoak eragindako bazterketa horrek hainbat osagai ditu: osasun-gaiak, hezkuntza-prestakuntza, etxebizitza, hirigintza eta abar. Beraz, arazoaren sail anitzeko ikuspegiari kokatzea nahi izatekoa da. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen zeregina, funtsean, emakume prostitutekin harremanetan jartzea da, prebentzio- eta gizarteratze-lanarekin batera. Beharrezkoa da informazioa biltzea, estatistika-erregistro bat ezartzea, problematika dimentsionatzea, horrela tartean dauden solaskide guztiek hausnarketa bateratua egin ahal izan dezaten. (Berostegieta, M., & Alegría, J. M., 1990)

Arnaiz Gómez-ek (2003) egindako ibilbide diakronikoan Bilbo Zahar inguruko mugimendu sozialen historian zehar, lau etapa bereizten ditu: lehen etapa, sortu zenetik laurogeiko hamarkadara arte, eta, gero, mugimenduaren mugarririk markatutako hiru etapak: taldeen koordinatzailearen sorrera, Birgaitzearen aldeko Mahaia eta birgaitze integraleko planaren edizioa.

Lehenengo etapa:

1975ean San Frantziskoko Familien Elkarteak sortu zen, auzokoa izateaz harro dagoen auzotar baten parte-hartze eremu gisa indarrez sartuz, eta bere bizi-kalitatea hobetzera bideratuz, instituzioen hondatze eta abandonuaren aurrean. (Arnaiz Gómez, E., 2003)

Erakundea hasiberria zen eta salaketa zen bere jardura nagusia. Frankismoaren gainbehera politikoak eta lehen trantsizioak baldintzatutako egoera historikoan sortutako gizarte-mugimendua. Garai honetan, Bilbo Zaharreko inguruko gizarte-mugimenduak Bilboko gainerako auzoen eskema bera jarraitzen du, hiriko aldirietako bat izan den eremu baten berezitasunekin, klase xumeenen bizileku izan dena eta erakundeek ahaztu ohi dutena. Urte haietatik auzo-elkarteen sare bat geratu zen, ahulduz joan zena. (Arnaiz Gómez, E., 2003)

Bigarren etapa:

Laurogeiko hamarkadan, hiru auzoetako (Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalako) herritarren mugimendua berpiztu egin zen, Birgaitzeko Taldeen Koordinakundearen hainbat dokumentutan agertzen den bezala.(Arnaiz Gómez, E., 2003)

Gatazkak identifikatzea eta jomugak adostea elkarte bakoitzean egiten da, baina, oro har, bat datoz helburu eta metodoetan. Honako hauek dira arazo larrienak: etxebizitza zaharren parke baten hirigintza-narriadura, horietako asko ehun urtetik gorakoak; droga-trafikoa gero eta handiagoa izatea eta erakundeak abandonatzea.(Arnaiz Gómez, E., 2003)

Hirugarren etapa:

Eta honetan Errehabilitaziorako Taldeen Koordinakundea sortuko da. Talde hau garatzeko gune nagusia hiru auzo elkarteak izango dira (Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala). Koordinakundean sartuko diren beste talde batzuk, hala nola Bizkaiko Hiesaren Aurkako Batzordea, Galtzagorri Emakume Taldea eta S.O.S. Arrazakeria; Iniciativa Gitana, Mirivillas langabetuen elkarte eta batzuetan parrokia, amalgama sozial gisa erabiliko dira gatazkaren pertzepzioa integraltasunerantz zabaltzeko.(Arnaiz Gómez, E., 2003)

Laugarren etapa:

Garai honetan, koordinakundea indartzen ari da, eta, lehen aipatutako taldeez gain, inguruko GKEetatik eta laguntza-taldeetatik (Askagintza, Gurutze Gorria), parrokiatik eta oinarritzko kristau-taldeetatik, etorkinen elkarteetatik eta abarretatik datozen beste talde batzuk gehitzen ari dira, erakundeekiko negoziazio- eta elkarrizketa-ahalmenaren itxurazko gorakadarekin paraleloan doan prozesu batean. Bi jauzitan atera ditzakegu argazkiak, gaur egungo koordinadorara iritsi arte, non hogeita hamar talde baino gehiago dauden. (Arnaiz Gómez, E., 2003)

Gaur egun, prostituzioaren gaian zentratuz, alde batetik “GU GAITUN” deituriko Federazioa dago, prostituzioan diharduten pertsonen kolektiboarekin lan egiten duten Euskal Erakundeak batzen dituen. (Euskal Federazioa, 2014)

Honen helburu orokorra, Euskadiko prostituzioaren arloko ikuspegi komuna duten elkarteak lan-sare aktibo batean biltzea, ekintza-, ordezkaritza- eta gizarte-sentsibilizazioko politikei dagokienez izango litzateke. Horrez gain, zehatzagoak diren hiru helburu planteatzen dituzte: ekintza, errepresentazioa eta sentsibilizazioa (Euskal Federazioa, 2014). Federazio honen parte da Askabide deituriko erakundea, zeinak prostituzio-egoeran dauden emakumeekin lan egiten duen, ahalduntze-prozesu indibidual eta kolektiboak sortzeko, emakumeek autonomia izan dezaten baliabideak eskuratzeko, beren eskubideak aldarrikatu eta garatzeko, eta tresna propio eta erabilgarriak bilatu eta sortzeko, etengabe egon daitezkeen gizarte-bazterketa larriko egoeretatik ateratzeko (Askabide – Si ejerce la prostitución, éste es tu sitio, s. f.-b).

Bilboko prostituzioaren fenomenoan eskuhartzen duten beste erakunde batzuk dira, alde batetik, Hiesaren Aurkako Bizkaiko Herri Batzordea, Euskadi osotik prostituzioan diharduten pertsonen zuzendutako prebentzio eta laguntza programa garatu dutenak, prostituzioan aritzea borondatez erabaki duten pertsonetan oinarrituz; eta, bestalde, Emakunde, (Emakumearen Euskal Erakundea Euskal Autonomia Erkidegoan) emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeaz, aholkatzeaz, planifikatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzen den erakunde publikoa da, horren barru prostituzioaren gaia baita ere jorratuz (Emakunde, s. f.).

Horiez gain, Emargi eta Euskal Herriko Mugimendu Abolizionista (EHMA) daude, zeinak abolizioaren aldekoak diren. Lehena, Bilbon jaiotako irabazi-asmorik gabeko elkartea da. Helburua da emakumeen eta nesken sexu- eta ugalketa-esplotaziorik gabeko etorkizun baten alde borrokatzea, tokiko, nazioko eta nazioarteko dimentsiotik. Horretarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-harremanak eraikitzearen aldeko apustua egiten dute, filosofia feministan oinarritutako balioak sustatuz eta emakumeen eta nesken eskubideak, duintasuna, ongizatea eta erabateko garapena kaltetzen dituzten logika patriarkalak eta botere-harreman matxistak gainditzea ahalbidetuko duten harreman-eredu sexu-afektibo berrien garapena eta hausnarketa sustatuz. (Emargi s. f.)

Bigarrena, hau da, EHMA, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde feministek eta aktibista partikularrek osatzen dute, Prostituzioa Abolitzearen aldeko Emakumeen Nafarroako Plataformarekin (PNAP) batera. Prostituzioa Abolitzearen aldeko

Emakumeen Erakundeen Estatuko Plataformari atxikita daude. (Euskal Herriko Mugimendu Feminista)

Prostituzioa indargabetzea du helburu, sexualitate-eredu bortitz eta misogino baten emaitza dela uste baitute. Hori lortzeko ezinbestekoa ikusten dute putazaleak zigortzea eta prostituzioan ari diren emakumeei alternatiba duinak eskaintzea. (Euskal Herriko Mugimendu Feminista, s. f.)

Pornografiaren eta alokairuko sabelen aurka ere borrokatzen dute, giza eskubideen aurka doazen emakumeen gorputza ustiatzeko moduak direlako. Porno, gainera, prostituzioaren marketina eta maskulinitate bortitz eta misoginoaren ereduia sustatzen duen sexu-hezkuntzako eskola da. (Euskal Herriko Mugimendu Feminista, s. f.)

Azkenik, Elizak ere hartu du bere tokia prostituzioan aritzen direnak laguntzen, izan ere, lehenetarikoak izan ziren rol hau hartzen (Arnaiz Gómez, E., 2003). Hain zuzen ere, gaur egun Ahizpa Oblatek prostituzioan diharduten emakumeak hartzeko, haien gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzeko, proiektuan lan egiten dute. (Hermanas Oblatas, s. f.)

Erakundeez gain, prostituzioan aritzen direnen eskubideengatik borrokatu dutenak aktibistak dira. XIX. mendearen azken herenean prostituzioak izandako gorakada izan zen etorkizuneko emakumea gizartean parte hartzeko mekanismoetan integratzen lagunduko zuten baldintzetako bat, izan ere, hori izan zen aktibista feministak mugiarazi eta bultzatu zituen beste alderdietako bat, emakumeen bizi-baldintzak kolektibo gisa, oro har, eta talde horrenak, bereziki. Gizartetik baztertuak izan ziren beren maitasun-jokabideagatik. Jokabide barkaezina hemeretzigarren mendeko gizarte batentzat, agindu erlijioso tradizionalenak zein korrante zientifiko arrazionalistek eraginda, emakumearen garapen parte-hartzaileari bizitza publikoan freno bat ezartzen baitzioten. (González García, S., 2006)

Gaur egun, Bilbon oso ezaguna den Amelia Tiganusek (2021) lan handia egiten du prostituzioaren eta feminismoaren aktibismoari dagokionez. Galatin jaio zen, Errumanian, 1984an. Aktibista, feminista eta prostituzioaren eta sexu-indarkeriaren inguruko sentsibilizazio- eta prebentzio-ikastaro eta -tailerretan trebatzailea da. Amelia Tiganus (2021) Emargi elkartearen sortzailea da, EHMA, Euskal Herriko Mugimendu

Abolizionistaren sortzaileetako bat eta militantea da, baita Nazioarteko Eskola Abolizionistaren sortzaileetako bat eta koordinatzailea ere.(Tiganus, A., 2021)

Amelia Tiganusek (2021) idatzitako liburuan dioenez, *La Revuelta de las Putas*, prostituzioa indargabetzeko eta isiltasuna eta errealitatearen ukazioa ez jasateko aktibista bihurtu zen. (Tiganus, A., 2021)

3. INTERSEKZIONALITATEA

Intersekzionalitatearen kontzeptua, kasu honetan, diskriminazio mota desberdinek elkarreragiten duten moduari dagokio. Hau da, pertsona batenganako diskriminazioa hainbat eremutatik etor daitekeela kontuan hartzeko erabiltzen da, hala nola, arraza, generoa, gizarte-klasea. (Crenshaw, 1991)

3.1. Prostituzioa intersekzionala da

Munduan zehar ematen diren prostituzioak berdinak ez badira ere, badaude fenomenoak, orokorrean, inguratzen duten zenbait gai. Izan ere, prostituzioaren fenomenoak testuinguru jakin batean gertatzen da, eta sistema zehatz baten barruan garatzen da. Sistema horrek, ezinbestean, sistema horretan parte hartzen duten kide sozialen jokabidea mugatuko du. Hori guztia ordena soziokultural hierarkiko eta matxista misogino batean gertatzen da, kontsumo-logika kapitalistaren eta, aldi berean, ideologia patriarkal indartsu baten mende, zeina egoera prostitutiboetan larriago agertzen baita. (Gómez Suárez eta Verdugo Matés, 2021)

Alde batetik, Diego Lodeiro Askabide erakundeko kidea. Diego Askabideko harrera zentroko koordinatzailea da, hezitzailea da, eta urte asko daramatza erakundean lan egiten. Harrera-zentroko koordinatzaile gisa, emakumeekin lehen harremana duena da; beraz, lehen eskaerei erantzuten die eta beharrak antzematen ditu. Prestakuntza-tailerretako gaiak ere koordinatzen ditu, emozioak kudeatzeko tailerrak... eta erakundea zabaltzeaz ere arduratzen da, prestakuntzak ematen ditu, hitzaldiak ematen ditu, ikasleei askabidea egiten dien lana aurkezten die... Horregatik oso pertsona egokia da lan honetan parte hartzeko.

Bestalde, María Luisa del Pozorekin hitz egin da, Ahizpa Oblata. Oblatak kongregazio bat dira, hemeretzigarren mendearen erdialdean sortu zena prostituzioan ari ziren emakumeak laguntzeko, eta, Luisak azaltzen duenez, “salerosketaren (trataren)

biktimak ez, orduan ez baitzen horrela hitz egiten”. Gaur egun, Oblatas Lehió Zabalik proiektuaren zuzendaria eta ordezkari legala da, hau da, hain zuzen ere, prostituzioan aritzen diren emakumeekin lantzen duten programa. Urte asko daramatza sektore honetan lan egiten, beraz, esan daiteke Bilboko hirian oso pertsona garrantzitsua dela arlo honetan. Izan ere, bere izan zen Askabide elkarte sortu zuenetako bat, egun jada haren parte ez izan.

2. ERAKUNDEAK: ASKABIDE ETA AHIZPA OBLATAK

Jarraian, elkarrizketatutako bi erakundeak aurkeztuko dira, egiten duten lanean sakontzen. Horretarako, Diego Lodeiro eta Luisa del Pozo-k, erakundeak ondo ezagutzen dituzten pertsonak, azaldukoak hartuko da kontuan. Erakundeek egiten duten lana ulertzeko, elkarte horiek gaur egun egiten dutena ondo ezagutzeko, garrantzitsua da hastapenetara jotzea, noiz eta zergatik sortu ziren jakitea, eta urteekin haien lana nola aldatu den jakitea, hobeto ulertzeko zer egiten duten orain eta nola iritsi diren dauden lekura. Horretaz gain, interesgarria da elkarte horiek etorkizunera begira nola ikusten diren jakitea, horrek elkarteei buruzko informazio asko eman baitezake, hala nola zer helburu dituzten epe labur eta luzera, eta baita jorratzen ari garen fenomenoari buruzkoa ere; izan ere, elkarte horiek prostituzioan aritzen diren emakumeekin hain gertutik lan egiten badute, prostituzioak zer bilakaera izango duen ikusten ere lagun dezakete.

a. Elkarteen sorrera

Ordena kronologikoari jarraituz, Ahizpa Oblatak kongregazioa Madrilen sortu zen 1864. urtean, hasieran gizarte-ekintza gisa sortu zen arren. Kongregazioa Gotzain batek sortu zuen, prostituzioan aritzen ziren emakume batzuen errealitatea ezagutu ondoren (M.L., del Pozo, 2022):

“le llamaron un día del Hospital de San Juan de Dios y se encontró con unas mujeres muy jóvenes que estaban en prostitución y que una vez que estuvieron curadas de salud, de las enfermedades que tenían, no querían volver a prostitución pero no tenían otro remedio” (3. ERANSINA)

Orduan, M^a Luisak (2022) azaltzen duenez, Antonia Mariarekin harremanetan jarri zen, Maria Kristina erreginarenekin alabaren irakasle izandakoa:

“una mujer que rompía un poco esquemas a todos los niveles, muy culta muy preparada dominando 5 idiomas, que tiene una pedagogía especial” (3. ERANSINA)

Eta Antonia Mariak egin zuena, erreginaren alabekin erabili zuen pedagogia berdina, emakume horiekin erabiltzea izan zen. (M.L., del Pozo, 2022)

Geroago, Bizkaiara ekarri zuten, lehenik eta behin, Areetan ezarri zen; funtsean, zaurgarritasun-egoeran zeuden neskatoak zaintzekoa zen. Ondoren, 72an Artxandara joan zen, neskatoekin prebentzioa deitzen zutena egiten. Neskatoen %90a Las Cortes auzoan prostituzioan aritzen ziren emakumeen alabak ziren, horren ondorioz, Las Cortes-en lan egiten hasi ziren prostituzioan aritzen ziren 12 pertsonarekin. Denbora batera Artxandako zerbitzua itxi zuten, administrazioak lan hori era egokian egiten zuela pentsatu baitzuten, beraz, Las Corteseko emakumeekin lanean geratu ziren Lehio Zabalik proiektua sortuz. (M.L., del Pozo, 2022)

“en 1999, las hermanas que estaban aquí crearon el proyecto del piso de acogida, Oblatas Lehio Zabalik. Al principio funcionaba únicamente como piso pero a partir del 2015 decidimos que había que separar lo que era proyecto cogida del proyecto residencia” (3. ERANSINA)

Azpimarratzekoa da M^a Luisak (2022) hainbatetan azaltzen duena baliabideak bikoizteari dagokionez, haien helburua ez da jadanik existitzen den baliabide bat eskeintzea, dauden hutsuneak betetzea baizik, horregatik:

“si Askabide ya está haciendo el trabajo de campo nosotras no vamos a hacer el trabajo de campo” (3. ERANSINA)

Bestalde, Askabide, irabazi-asmorik gabeko elkarte, 1985.urtean sortu zen, prostituzioan aritzen diren emakumeen beharrei erantzuna emateko helburuarekin. Hasiera batean boluntaritzapean sortu zen, auzoko pertsona-talde batek prostituzioan aritzen ziren emakumeekin arazo oso zehatzak ikusi baitzituen (D. Lodeiro, 2022). Garai hartan, prostituzioa kalean egiten zen, beraz:

“con el voluntariado, de hacer rutas por la calle, contactar con ellas, ver qué necesidades nos demandaban y demás, empezamos un poco a funcionar. Luego más tarde se tiene un local, luego nos pasamos a un piso de viviendas

municipales, al final tenemos un centro de acogida y ya poco a poco se van creando otros recursos, con personal, y llegamos al Askabide que hay actualmente. Mucho más personalizado, mucho más personal.” (2. ERANSKINA)

Beraz, esan daiteke prostituzioan aritzen diren emakumeen problematikari dagokionez gizarteak antzeman zituen beharreatatik sortu zirela bi elkarteak, bien helburua berdina dela, emakume horien beharrei erantzutea, baina eskaintzen dutena ez dela gauza bera, hurrengo atalean ikusiko den bezala.

b. Gaur egungo lana

Askabideren kasuan, Diego Lodeirok (2022) azaltzen duenez, gaur egun, 20 langilek osatzen dute Askabide, sektorearen zati txiki bat izan arren, urteekin asko handitu dena erakundeari dagokionez. Haren helburua berdina da gaur egun, baina prostituzioa hain aldakorra denez, elkartearen lanean sartzeko dela aldaketa horietara egokitzea programak eskakizun eta behar berrietara bideratuz.

“Hay programas de Askabide que se crearon en los inicios, o que se han creado a lo largo de la trayectoria, y ya no siguen porque ya no tienen sentido, porque ya no hay esas necesidades, otros que se han ido adaptando con el tiempo y otros que son nuevos o de hace pocos años.” (2. ERANSKINA)

Programa horien bidez lortzen dute emakumeekin kontaktuan jarraitzea, eta egiten duten kaleko lanaren barru kokatzen dira (D. Lodeiro, 2022):

“Están dirigidas tanto a clientes como a las mujeres que ejercen la prostitución y siempre trabajamos un poco eso, por ejemplo, el consentimiento, el uso de preservativo, alguna también de trata para que el cliente aprende a detectar los posibles casos de trata, ...” (2. ERANSKINA)

Era bisualean jaso ahal den informazioa izaten da, bai karteletan, bai edalontzi-aspikoetan... jartzen duten mezua eta gero kaleko lanaren bidez emakumeei ematen dizkiete edo klubetan uzten dituzte (D. Lodeiro, 2022).

Ahizpa Oblaten kasuan, Askabideren kasuan bezala, errealitateari eta gertatzen ari diren aldaketei adi daude, ematen ari diren premiekin bat datozen erantzunak

ziurtatzeko. Une honetan, Lehio Zabalik programan prostituzioan aritzen diren emakumeei eta salerosketaren biktimei arreta ematen ari dira. (M.L., del Pozo, 2022)

Lehio Zabalik programa hiru proiektuk osatzen dute: harrera-proiektua, bizitegi-proiektua eta integrazio sozialekoa.

Harrera-proiektua emakumeekin lehen kontaktua da, horretan arreta pertsonalizatua eskaintzen da, emakume bakoitzaren beharrak lehen aldiz ezagutuz: (M.L., del Pozo, 2022)

“es la atención y el acompañamiento personales, orientación formación y asesoramiento, tramitación de documentación, apoyo al retorno voluntario asistido en caso de que lo soliciten, asesoramiento de cara a recursos de servicios sociales, laborales, jurídicos, informativos y de salud” (3. ERANSINA)

Proiektu honetan garrantzi asko hartzen dute bestelako erakundeek, bai publiko zein pribatuek, baliabideak ez bikoiztearen printzipioa jarraituz, sareko lana ezinbestekoa delako. (M.L., del Pozo, 2022)

“nosotras no tenemos actividades grupales y no creamos recursos para las mujeres sino que lo que hacemos es integrar, es decir si viene una mujer si necesita clases de castellano entonces les integramos depende cual sea su situación administrativa (...) con el resto de población que necesita aprender castellano, pero nunca duplicar servicios.” (3. ERANSINA)

Bizitegi-proiektuari dagokionez, gizarteratzeko eta laneratzeko baliabide bat da, bizileku segurua da, eta beharrezkoa balitz, babestua; betiere, emakumearen ahalduntzea bultzatuz. (M.L., del Pozo, 2022)

Azkenik, gizarteratze proiektua, emakumeak behar duenean kontaktua mantentzea eta erreferentzia izatea, eta prozesuak garatzeko laguntza eta laguntza ematean datza. (M.L., del Pozo, 2022)

Lehio Zabalik programa aurrera eramaten duen taldeari dagokionez, talde interdisziplinarra da: gizarte-integratzailea dago, pisuaren arduraduna, gizarte langilea, administrari bat, kabinete psikologikoa eta zuzendaria, azken hau M^a Luisa izanik. (M.L., del Pozo, 2022)

Beraz, ikusi daitekeenez, bi elkarteek egiten duten lana berdina ez bada ere, badute emakumeen beharrei erantzuteko dinamika komuna.

c. Etorkizunean

Elkarrizketan galdetzean zelan ikusten zuten haien erakundea etorkizunera begira, biek aipatu zuten Lege proiektua, hain zuzen ere, sexu-askatasunaren Berme Integralari Buruzko Lege Organikoaren proiektua. Biek kezka erakutsi dute lege hori onartzeko aukeraren aurrean:

Batetik, legedi berri batek per se suposatzen duen ziurgabetasunagatik,

“un poco a la expectativa de a ver qué pasa con los cambios de legislación. Sobre todo con ese proyecto de ley, ese borrador, sobre todo por si sale a la luz y se aplica... pues va a ser un antes y un después.” (2. ERANSKINA)

eta, bestetik, ondorioa prostituzioa are klandestinoagoa izatea izango delako aurreikuspenagatik.

“Pues porque como prevemos se va a volver muy clandestina y ahí la dificultad para poder acceder.” (3. ERANSINA)

3. BILBOKO PROSTITUZIOA

Behin ezagututa Askabide eta Ahizpa Oblatak, haien historia eta egiten duten lana, lan honen gai nagusian murgiltzeko momentua da, hau da, Bilbon prostituzioan aritzen diren emakumeak nolako bizitza duten ezagutzeko momentua. Horretarako, elkarrizketetan: alde batetik, emakumeen profila eta egoerari buruz galdetu da, azken urteetan eman diren aldaketetan fokoa jarritz; eta, bestalde, emakume hauek jasaten duten edo dituzten indarkeriei buruz ere galdetu da, eta, baita, horren aurrean erakunde, gizarte eta poliziak ematen duten erantzunari buruz.

a. Emakumeak: profila eta egoera

Atal hau, emakumeen errealitateari buruz galdetzean emandako erantzunetan oinarrituko da. Azpimarratzekoa da, emakumeen profila eta egoerari buruz, eta baita horietan eman diren aldaketei buruz galdetzean, biek bi aldaketa

berdinak nabarmendu dituztela: alde batetik, emakumeen jatorria, eta, bestetik, prostituzioan aritzeko moduan gertatu den aldaketa.

Hasteko, profilari buruz galdetzerakoan, bai D. Lodeirok (2022) eta baita M.L. del Pozok (2022), migrazioari buruz hitz egiten dute. Izan ere, gaur egun Bilbon prostituzioan aritzen diren emakume gehienak atzerritarrak direla diote.

“En nuestro caso el 91% de mujeres atendidas en el 2021 eran mujeres inmigrantes Y de este 91 el 71 % estaba en una situación administrativa irregular.” (3. ERANSINA)

Honekin batera, Diegok, zentzu honetan eman den aldaketari buruz hitz egiten du, konparatuz 1985. urteko migrazioa gaur egungoarekin, garai hartan migrazioa estatu barruan egiten baitzen.

“Eran mujeres que, por lo general, emigraban del sur al norte del Estado, de ahí que haya muchas mujeres mayores en el barrio de Las Cortes, que es el enclave donde ha estado siempre la prostitución concentrada en Bilbao. (...) eran mujeres migrantes pero de dentro del estado”. (2. ERANSKINA)

Aldiz, bat dator M.L. Luisarekin gaurko profilari begira:

“No es como la realidad con la que nos encontramos ahora, donde un 90% de las mujeres que nos encontramos son migrantes.” (2. ERANSKINA)

Nazionalitateari dagokionez, kontuan hartu behar den arren *“van cambiando las procedencias”* (2. ERANSKINA), Luisa del Pozok, Ahizpa Oblatekin egon diren emakumeei buruzko jatorrizko herrialdeak konpartitu zituen:

“Colombia, fundamentalmente, Venezuela, Nicaragua, que había sido el número mayor de las mujeres antes de la pandemia, pues ha bajado como a un tercer lugar. De Venezuela 14, Colombia 9, Nicaragua 8, esto víctimas identificadas, es decir, tienen el proceso abierto, 1 de Nigeria, 1 de Rumania, 2 de Marruecos...” (3. ERANSINA)

Emakumeen profilarekin jarraituz, interesgarria da zelan Luisak lotu zituen hezkuntza maila eta maila ekonomikoa. Izan ere, prostituzioari buruz hitz egiten denean

emakumeen egoera ekonomikoari egiten zaio erreferentzia, baina gutxitan haien ikasketei, edo aipatuz gero, hauen maila baxuaz hitz egiteko izaten da.

“Hay otro aspecto que nos llama también mucho la atención que es en torno a los estudios y que rompe todos los imaginarios, entonces, había cinco carreras universitarias, o sea el nivel es alto (...). Nos ha sorprendido en el estudio porque se cree que son analfabetas pobres y a nivel económico puede ser que sí pero luego tiene muchas competencias.” (3. ERANSINA)

Esan bezala, eman den beste aldaketa garrantzitsua, prostituitzeko erarekin du zer ikusia. Izan ere, 80.hamarkadan Bilboko prostituzioa Las Cortes kalean ematen zen, baina gutxinaka zabaltzen joan zen hiriko beste eremu batzuetara.

“se empieza a ampliar, se empieza a diversificar la prostitución, (...) entonces ya empieza a cambiar ese mapa de la prostitucion que teníamos en Bilbao” (2. ERANSKINA)

Gainera, horrekin batera eman zen beste aldaketa bat, prostituzioan aritzeko lekua izan zen:

“lo que ha pasado es que la prostitución de calle ha desaparecido o es residual y (...) los clubs también han reducido pero han cogido más importancia los pisos y los pisos como alquiler de habitaciones.” (3. ERANSINA)

Azaltzen dutenaren arabera, 90.hamarkadan hasi zen eboluzio hori, gaur egun ere jarraitzen duen aldaketa da. Azkenean, esan daiteke, prostituzioa gero eta ezkutuagoa izateko joera duela. Izan ere, Diegok azaltzen duenez, lokalak ixteko eta irekitzeko erreztasun handia dute, eta oso zaila da klubaren erregistroa egitea.

“ahora mismo nos encontramos en un cambio, que la prostitucion, la tendencia esa, que se jerga en pisos, comunidades de vecinos, en cualquier calle de Bilbao, que responde un poco a la invisibilidad que siempre tiene la prostitución.” (2. ERANSKINA)

Horrez gain, aldaketa honi dagokionez, Luisak emakumeen mugikortasunean jartzen du fokoa, azalduz, emakumeak asko mugitzen direla eta horregatik, gaur egun, ezinezkoa dela leku konkretu bateko prostituzioaz hitz egitea, era isolatu batean, denak daudelako, era batean, konektatuta.

“Lo que destacamos nosotros es la gran movilidad de las mujeres, o sea ya no se puede decir Bilbao Bilbao.” (3. ERANSINA)

M. Luisa del Pozok asalten duen beste ezberdintasun bat, prostituzioa emateko moduari buruz, da *“la llegada de los medios audiovisuales”* (3. ERANSINA). Modu honetan emakumeak, Luisak dioenez, ustiapen-modu berri bati egin behar diote aurre, ez baita beharrezkoa etxetik ateratzea "publizitatea" egiteko. Gainera, *“las personas que están al frente de las redes, son mucho más rápidos y ágiles que nosotros, que sale una legislación, inmediatamente hacen la adecuación”* (3. ERANSINA).

Sexu-bermeari buruzko legearen arabera, ezin da prostituzioa sustatzen duen publizitaterik edo iragarkirik egin. Horren aurrean, pertsona horiek web orriak sortzen dituzte *“sala de masajes”* (3. ERANSINA) moduan iragarritz.

Atal honekin amaitzeko, interesgarria da ikustea zein diren elkarteek haien lana egiteko dituzten arazo handienak.

Luisaren kasuan, arazorik handiena, edo hobeto esanda, erronkarik handiena, prostituzioak hartzen dituen aldaketen erritmoari eta emakumeen beharrei jarraitzea da. Are gehiago kontuan hartuta, batez ere COVID-19aren ondoriozko kuarentenaren ondoren, prostituzioa ezkutuagoa bilakatu dela, erakundeentzat oraindik zailagoa egiten emakume horiei laguntza eskaintzea.

“una mayor clandestinidad y una mayor dificultad para las entidades para acceder a ellas y ellas para acceder a las entidades, por falta de confianza porque yo creo que se está minando.” (3. ERANSINA)

Diego, aldiz, emakumeen egoeran zentratzen da. Izan ere, berak dioenez, emakumeak gero eta egoera okerragoetan heltzen dira Askabidera, eta horrek arazo bat suposatzen du:

“uno de los problemas que llevamos viendo desde hace poco es que cada vez vienen en unas situaciones más precarias y eso hace que la respuesta que le puedas dar sea muy limitada o que no se la puedas dar.” (2. ERANSKINA)

Azkenean, berak dioenez, ez da bakarrik Askabide baliabiderik ez duela, askotan, bestelako erakundeek, udaletxeak, legeriak... ere ezin du erantzun bat eman edo ematen duen erantzunak denbora handia hartzen du:

“lleva mucho tiempo, la burocracia cada vez es mayor; y eso también hace que las demandas muchas veces se queden en el camino.” (2. ERANSKINA)

b. Pairatzen duten indarkeria eta erakundeen lana honen aurrean

Prostituzioan aritzen diren emakumeek pairatzen duten indarkeriari buruz galdetzean, bi elkarrizketatuek erantzun berdina ematen dute: emakumeek gehienetan pairatzen duten indarkeria haien lanaren parte bat bezala ikusten dute, beraz, ez dira jabetzen gertatu zaien hori benetan ez dela normala eta ez litzaiekeela gertatu behar:

“Porque uno de los temas que si que vemos y que tenemos que trabajar es que se pueden ver muchas violencias pero que la mujer las naturaliza. Lo importante es hacer conciencia.” (3. ERANSINA)

Horren ondorioz, ez dituzte gertaera horiek konpartitzen eta ez dira inoiz argitara aterako; izan ere, Diegok dioenez:

“en muchísimas ocasiones las situaciones de violencia que se puedan dar en el ejercicio de la prostitución no salen a la luz, de hecho yo me atrevería a decir que la mayoría de ellas no salen a la luz no se visibilizan y no forman parte de las estadísticas incluso no es más incluso hasta te llegaría decir que muchas de las mujeres que ejercen prostitución lo viven como algo implícito ya qué forma parte de ejercicio.” (2. ERANSKINA)

Hala ere, biek ere esaten dute badaudela horretaz oso kontziente diren emakumeak eta kontatzeaz gain salatzeko ere prest daudenak, baina, hauek gutxiengoa izaten da, salbiuespena, halegia.

Emakumeek elkarreei jakinaraztea erabakitzen dutenean, batzuetan nahi gabe gertatzen den zerbait, horiek martxan jartzen dira. Ahizpa Oblaten kasuan:

“Lo primero la escucha, ver qué verbaliza y qué no verbaliza la mujer. (...) y un poco que tome conciencia de que “mira, fijate, son violencias”(...) Sobre todo la escucha y el acompañamiento, buscar la forma de comprender que no pues mira esto no es natural esto se llama violencia” (3. ERANSINA)

“Bueno pues en un primer momento, escucharlas, que suena muy evidente pero es así porque tampoco hay espacios donde ellas puedan y luego una vez que sea

real y que se haya dado una situación y que ella lo traslade y tal pues evidentemente seguir sus planteamientos y lo que ella quiera hacer. (...) nosotros esa posibilidad se la decimos (salaketa jartzeko aukera) ” (2. ERANSKINA)

Laburbilduz, bizitzen dituzten indarkeria egoera asko ez dituzte indarkeria bezala ikusten, edo pentsatzen dute haien lanarekin bat datorrela. Erakundeek, horren aurrean, ezin dituzte emakumeak behartu ez duten erabaki bat hartzera, horregatik prozesuan laguntzen dituzte, dituzten aukera guztiak azalduz.

Azkenik, hona hemen M^a Luisak emandako indarkeria ezberdinen zerrenda bat, indarkeria fisiko zuzena bezain nabariak ez diren indarkeriekin:

“es normal que la mujer esté desde el viernes a la noche hasta el lunes a las 8 de la mañana disponible, eso es violencia. (...) Y luego (...) el hecho de estar en una sociedad patriarcal en la que los roles están definidos como están definidos, eso ya es una violencia, el no reconocimiento de los derechos es una violencia. Porque también es violencia cuando las mujeres no pueden acceder a los recursos. (...) cuando les negamos posibilidades. Cuando las medidas que se adoptan pueden ser muy sabias pero son muy injustas, el hecho de ser inmigrante y estar en una situación irregular, el no tener derechos, eso es una violencia. (...) cuando (...) se ven obligadas (...) a realizar determinadas prácticas en contra de su voluntad, eso es violencia. (...) en el caso que cobre ella, el hecho de que no le pague” (3. ERANSINA)

c. Gizartearen eta poliziaren ikuspuntua

Erakundeek egoera honen aurrean egiten dutena jakin arren, interesgarria da jakitea, haien ikuspuntutik zelan ekiten dioten Bilboko gizarteak eta poliziak.

Gizarteari dagokionez, prostituzioa inguruabar baten ematen da, non gizarteak (haren ideologiak, antolaketak...) oso paper garrantzitsua duen, horregatik prostituzioari buruz hitz egitean ezin da alde batera utzi. Alde batetik, Diego Lodeioren ustez, prostituzioan aritzen diren emakumeek haien gain pairatzen duten indarkeriarekin duten tolerantzia maila altu hori gizarteak ere baduela, bestelako emakumeekin konparatuz:

“creo que existe más tolerancia por parte de la sociedad a las agresiones sufridas por las mujeres que ejercen la prostitución (...) creo que somos menos

tolerantes con ellas, menos empáticos y que incluso es que socialmente la prostitución genera un poco esa doble moral” (2. ERANSKINA)

Aldiz, Luisak era guztietako iritziak daudela uste du. *“yo creo que en la sociedad, como en todos los lugares, hay diferentes posturas” (3. ERANSINA)*: haien lanaren parte bezela ikusten dutenak, iritzirik ez dutenak edota onartezina dela uste dutenak, baita batzuetan ekintza hartzen dutenak ere.

Poliziarri dagokionez, bai Luisak eta baita Diegok ere iritzi berdina dute honen aurrean. Azaltzen dutenez, azken urteetan poliziak heziketa jaso du gai honen inguruan eta agerikoa da prestatuago daudela.

“los subgrupos de las 3 policías tienen grupos especializados para temas de trata. Y en general, el trato que dan a las mujeres es bueno y que tienen una buena coordinación y esa es la experiencia de las propias mujeres, del trato que reciben. Yo creo que en los 3 cuerpos policiales se ha hecho un esfuerzo de preparación y se nota en el trato.” (3. ERANSINA)

“poco a poco se están dotando de muchos recursos y muchas personas que realmente controlan en el tema y saben y bueno se van dando pasos. De hace unos años ahora sería impensable que la policía este dónde está trabajando con ellas” (2. ERANSKINA)

Esan beharra dago aldaketa hori azken urteetan eman dela, aipatutako prestakuntza horregatik, eta prostituzioan aritzen diren emakumeek ere igertzen dutela, eta, gutxinaka bada ere, gero eta harreman hobea ari direla eratzten, Diegok azaltzen duenez.

“Creo que como todo es algo relativamente nuevo que se está poniendo en marcha, pero bueno también cada vez trabajan más con las organizaciones, trabajan más con las mujeres, (...) incluso en la mentalidad de ellas, incluso el vivir la policía como algo que no sea represivo si no más cercano, conlleva mucho tiempo y más en una situación como la de ellas.” (2. ERANSKINA)

Beraz, poliziarri dagokionez, bi erakundeek, haien esperientziatik, lekuko izan dira azken hamarkadetan egon den eboluzioaz, batez ere, diotenez, trata kasuetan, non bereziki ikusten den jaso duten formakuntza.

d. Egoera idilikoa

Elkarrizketaren azkenengo galderak, prostituzioan aritzen diren emakumeen egoera era idilikoan konpontzeko modua azaltzea propositzen zuen, betiere haien ikuspuntu pertsonaletik. Oso deigarria da biak bat datozela esatean egin daitekeen gauzarik onena emakumeak entzutea dela; izan ere, bi aldeek iradokitzen duten lehenengo gauza da.

“creo que lo que deberíamos hacer es escucharlas, a todas ellas” (2. ERANSKINA)

“Lo primero es escucharlas, porque sino nos la pasamos creando leyes y normativas para ellas pero sin ellas.” (3. ERANSINA)

Alde batetik, emakume bakoitzaren errealitatea oso ezberdina da, baita haien nahiak ere, horregatik, Diegoren planteamendua jarraituz, hobereena denak entzutea izango zen, eta ondoren bakoitzaren beharrak kontuan hartuz esku-hartzea, baina *“de una manera mucho más integral”* (Diego); bestalde, Luisak uste du fokoa emakumeetan jarri behar dela, haiek direla erabaki behar dutenak eta profesionalak haiek entzuteko prest egon behar dutela eta baita *“percibir las necesidades que no son verbalizadas pero que también son necesidades”* (3. ERANSINA).

Beraz, biek uste dute oso garrantzitsua dela emakumeak entzutea, hori izan beharko lukeela lehen urratsa edozer egin aurretik, eta behin emakumeen behar eta nahiak jaso direla, orduan hasi beharko liratekeela profesionalak haien lana egiten; bai haiekin zuzenean lan egiten dutenak, bai urrunetik lan egiten dutenak, hala nola, prostituzioan aritzen diren emakumeei dagozkien legeak egiten dituztenak.

Horrez gain, biek ere bereziki azpimarratzen dute emakume guztiak entzun behar direla *“Tanto las que quieren una alternativa laboral como las que no”* (2. ERANSKINA), azken finean emakume bakoitzak bere helburuak dituela eta horiek landu behar direla, abolizionista edo erregulazionista den kontuan hartu gabe, izan ere, *“cuando las mujeres vienen al programa no vienen porque seamos abolicionistas ni porque seamos pro-derechos, vienen con una situación X, vamos a escucharlas”* (3. ERANSINA). Biek dute argi helburua emakume horiek bizi-egoera hobetzea dela, helburu ideologikoetan sartu gabe, behintzat lehen esku-hartze batean.

Azkenik, Luisak beste puntu garrantzitsu bati heltzen dio, emakume hauek ez dira haien egoeraren errudun, eta ezinbestekoa da hori jakinaraztea, ondorio bat izan daitekeelako haien artean antolatzea gauzak hobetzeko.

“hay un elemento, relacionado con lo que te decía antes, tu no eres la culpable de que te pase esto, un elemento que me parece muy importante el tema de la solidaridad. Por ejemplo, en el tiempo de la pandemia es increíble cómo se han organizado. Y eso es una dimensión política, que sean capaces de sentarse, de hablar de sus situaciones, de movilizarse y de organizarse.” (3. ERANSINA)

C) ESKU HARTZE PROPOSAMENA

Lanaren hasieratik aurreratu denez, Bilboko prostituzioaren errealitatearen azterketa honen helburua esku-hartze proposamen egoki eta errealista ematea da. Horretarako, berebizikoa da, alde batetik, prostituzioaren fenomenoaren ezagutzea eta baita prostituzioan aritzeak emakumeentzat ze ondorio izan ditzaken; eta, bestalde, gertuko egoera batera hurbiltzea, emakume horien egoera benetan nolakoa den jakiteko, oraingoan era praktikoa batean. Azken finean, fikzio baten oinarritzen den esku-hartze bat ez duelako erabilpenik izango.

1. SARRERA

Lan honetan zehar ikusi den bezala, prostituzioa mundu osoan zehar, kultura eta gizarte guztietan, ematen den fenomeno da. Azpimarratu behar da komunean dutena gizonak eskatzen dutela eta emakumeek eskaintzen dutela dela, hala izaten baita kasu gehienetan. Beraz, esan dezakegu gizarte patriarkal batean bizitzea, non gizonen pribilegio jakin batzuk mantentzen dituzten emakumeen aurrean, badela prostituzioarekin erabat lotuta dagoen zerbait. Gainera, emakumeen eskaintza hori, gure herrialdean behintzat, emakume migratzaileena da gehienbat, eta egoera ekonomiko oso prekarioak bizi dituzte. Beraz, jatorria eta egoera ekonomikoa ere, nolabait, fenomeno horrekin lotuta daude.

Hori ulertzea garrantzitsua da; izan ere, prostituzioan aritzen diren emakumeen aldeko eta emakumeentzako esku-hartzeak interseksionala izan behar du, ezin da soilik emakumeak direla kontuan hartu, ez bailioke erabat helduko emakume horien errealitateari, eta gutxi batzuentzat bakarrik balioko luke.

Behin hori argi geratu dela, prostituzioaren beste alderdi bati buruz hitz egin behar da: indarkeria. Prostituzioan aritzen diren emakumeek haien egunerokotasunean sufritzen dute indarkeria, beti indarkeria fisikoa ez bada ere, azken hau ere pairatzen dute maiz. Gainera, bestelako indarkeriak, egiturazkoa eta sinbolikoa, egunerokotasunean pairatzen dituzte, eta mingarriagoak izan daitezke, indarkeria normalizatzeko eta ezkutatzeko balio baitute.

Jarraituz, indarkeria sinbolikoari dagokionez, prostituzioan aritzen diren emakumeenganako estigma aipatu behar da. Prostituzioan sartzen diren emakumeak,

prostitutak diren lehen momentutik, etiketa hori jartzen zaie, prostitutarena, eta ordutik oso bestelako tratua ematen zaie. Badirudi ahaztu egiten dela, prostituta izatetik harago, prostituta pertsona bat dela, emakumea dela, eta horrek diskriminazio handiagoa eragiten duela, eta, ondorioz, haiekiko indarkeria.

Prostituzioan aritzen diren emakumeek pairatzen duten indarkeria gehiena estigma horretatik dator, horregatik garrantzitsua da estigma horretatik lan egiten hastea, bai haiekin bai gizartearekin, etiketa hori desegiteko.

Prostituzioa oso fenomeno konplexua da, eta hainbat eremutan landu behar da, emakume horien egoera izugarri hobetu dadin. Hala ere, ezin dira gai guztiak jorratu (osasuna, indarkeria, lan-eskubideak, irregulartasun-egoera...), ezta agente guztiak ere (prostitutak, bezeroak, proxenetak...), ezta, are gutxiago, hainbat erakundetatik ere (udala, elkarteak, polizia, hezkuntza...) esku-hartze bakar batekin.

Egia da egokiena izango litzatekeela esku har dezaketen erakunde guztien artean sare bat sortzea, proiektu bateratu bat sortzea, bakoitzak, bere gaitasunekin, zerbait eman ahal izateko. Hala ere, hurrengo esku-hartzean, baliabide eta informazio faltagatik, esku hartzeko proposamen errazago bat aurkezten da, lehen aipatutako puntu batzuetara iristen dena, eta ez guztietara, baina interesgarria da, egoera errealista batetik hobetzea proposatzen baitu. Eta garrantzitsua da hobetu hitza, konpondu beharrean; izan ere, aipatu bezala, horrelako proposamen isolatu batekin ezinezkoa litzatekeelako horrelako zerbait konpontzea.

2. JUSTIFIKAZIOA

Prostituzioan aritzen diren emakumeek pairatzen duten indarkeria askotan normalizatu egiten da eta prostituzioa gauzatzearen parte bezala ikusten da. Haien gain duten estigmaren ondorioz, tolerantzia handiagoa dago haiek pairatzen duten indarkeriaren aurrean. Gainera, tolerantzia hori, ez dator soilik indarkeria gauzatzen dutenen partez, zeinek prostitutaren figura mespresatzeari ez dioten garrantzi gehiegirik ematen; tolerantzia hori prostituta berberengandik eta gizartearengandik ere existitzen da.

Prostituzioan aritzen diren emakumeek ere etiketa hori onartu dute, berekin dakarren guztiarekin. Horregatik, haiekin landu beharreko funtsezko puntu bat

ahalduntzea da, etiketa horretatik aldentzeko prozesu batean laguntzea eta beraiek ere prostituta izatetik haratago pertsonak direla eta emakumeak direla konturatzea, eta ezin dela onartu jasaten duten indarkeria.

Azken horrekin lotuta, emakumeak kontzientziateaz gain, gizartearekin, orokorrean, ere landu behar da etiketa horrek dakarrena. Izan ere, gizartea da etiketak jartzen eta mantentzen dituen, baina baita horietaz desegiten dena ere. Beraz, emakumeekin ahalduntze lan hori egiten den bitartean, gizartearekin aurreiritziak kentzeko lana egin behar da.

Azkenean, emakumeek eta gizarteak dituzten etiketa horien ondorioz, indarkeria toleratu, normalizatu eta justifikatu egiten da. Hemen dago estigma horren benetako arazoa. Izan ere, normalizate horren ondorioz indarkeria kasu gehienak isilpean geratzen baitira. Alde batetik, prostitutenganako indarkeriari ez zaiolako garrantzirik ematen, haien lanaren parte dela uste delako; eta, bestetik, ez dutelako haienganako indarkeria salatu nahi, epaituak izateko beldurragatik, ez sinesteagatik, sistemaz ez fidatzeagatik... Eta hau lantzea ere ezinbestekoa da emakume horienganako indarkeria agerikoa izaten has dadin.

Eraso horiek oharkabean pasatzeari uzteko, esku-hartze honen helburua da, hasiera batean, emakumeak eurak kontzientziatea eta ahalduntzea, eta, ondoren, gizartea, mahai gainean jarriz indarkeria hori existitzen dela, ez dela onargarria eta amaiera eman behar zaiola.

3. HARTZAILEAK

Esku-hartze honek hainbat azpi-atal ditu, zeinen bitartez hainbat hartzailerik heldu nahi zaie:

Lehen hartzaileak, era zuzenean, prostituzioan aritzen diren emakumeak dira. Haien dira protagonistak eta horregatik espazio bat eman nahi zaie esku-hartze honen bidez kontzientziateko, baina, batez ere, haien iritzia entzuteko eta haien figura ahalduntzeko haien parte hartze aktiboa bultzatuz.

Bestelako hartzaileak, zeharkako bidean bada ere, prostituzioa kontsumitzen dutenak, kontsumitzaile izan daitezkenak eta gazteak dira, azken hauek ere kontsumitzaile izan daitezkeelako. Alde batetik, prostituzioa Bilboko pisu eta klubetan

kontsumitzen dutenak izango dira hartzaile; eta, bestetik, gazteak balizko kontsumitzaile gisa eta gizartearen zati garrantzitsu gisa.

4. DENBORA

Esku-hartzea Bilbon egingo da, baina edozein hiri zein herritan egiteko posibilitatea dago. Bilbo hiri handia izanik eta prostituzioari dagokionez, historial handia duenez, esku-hartzea lehen aldiz aurrera eramateko leku oso aproposa da. Gainera, Bilbon badaude prostituzioan aritzen diren emakumeekin elkarlanean aritzen diren erakunde ugari, eta hori oso garrantzitsua da proiektu honetarako.

Izan ere, prostituzioan aritzen diren emakumeekin lan egiten duen elkarte batek aurrera eramateko prestatuta dago, emakume hauen errealitatea ondo ezagutu behar delako horrelako esku-hartze bat egiteko eta erakunde hauek, printzipioz ondo ezagutzen dituzte. Hala ere, arrazoi beragatik, emakumeak oso protagonista izango dira esku-hartze honetan, izan ere, oso garrantzitsua izango da esan behar dutena entzutea. Horregatik, jada ezagutzen duten espazio baten egitea gomendatzen da, ezagutzen dituzten profesionalekin eta konfidantzazko eta, batez ere, errespetuzko, espazio batean.

Esku-hartzea hiru zatitan banatzen da eta zati bakoitzak ere bere azpi-atalak ditu. Hau da, hiru bloketan banatuta dago, eta bloke bakoitzaren barru hiru jarduera daude. Azpi-atal edo jarduera bakoitzak 2 orduko iraupena izango du gehienez, baina kasu askotan denbora emakumeen parte-hartzean oinarrituko da, horregatik zaila da zehaztea zenbat iraungo duen ekintza bakoitzak. Horrez gain, hiru hilabeteko iraupena edukiko du, irailetik azarora, kontuan hartu behar delako emakume hauek asko mugitzen direla hiri batetik bestera. Beraz, hilabete bakoitzean hiru jarduera eramaten dira aurrera.

5. HELBURUAK

Orokorrak:

- Gizarteari jakinaraztea prostituzioan aritzen diren emakumeek indarkeria pairatzen dutela.
- Gizartea kontzientziatzea, ikustaraziz ez dela prostituzioaren praktikarekin bat datorren zerbait.

- Prostituzioan aritzen diren emakumeak kontzientziatzea eta ahalduntzea, jasaten duten indarkeria onartzeari eta isiltzeari uzteko.
- Bezeroei emakume horiekiko errespetuan hezteak.

Espezifikokoak:

- Emakumeei beren esperientziei buruz hitz egiteko espazioak ematea, epaituko ez diren espazio seguru batean.
- Emakumeei salaketarako urratsa ematen laguntzea, haiek erabakitzen dutenean, eta prozesu osoan laguntzea.
- Bezeroak kontzientziatzea prostituzioan aritzen diren emakumeekin etsaitasunezko gune bat sortzeko izan ditzaketen modu zehatzei buruz.
- Emakumeei tresnak ematea, indarkeria jasaten duten egoerei aurre egin ahal izan diezaieten.
- Emakumeek beren buruarengan eta hainbat elkarterengan duten konfiantza lantzea, bakarrik ez daudela eta sinesten dituen jendea dagoela ikusaraziz.
- Gazteak kontzientziatzea prostituzioan aritzen diren emakumeek jasaten duten indarkeriari buruz, indarkeria hori gertatzen den modu desberdinei buruz eta ez gauzatzearen garrantziari buruz.
- Emakumeei rol aktibo bat eskaintzea lehen pertsonan pairatzen duten arazo bati buruz bezero eta gazteak kontzientziatzeko.

6. METODOLOGIA

Esku-hartze honen metodologiari dagokionez, parte hartzea bultzatzen duten jarduerak dira, talde txikietan (gehienez 10 pertsona) egiteko pentsatuta daude baina malguak dira eta emakumeen taldera egokitzen dira.

Proiektua hiru zatitan banatuko da, non emakume bakoitza libre izango den nahi duenean parte hartzeari uzteko. Hala ere, ordena jarraitzea garrantzitsua izango da, beraz, ezin izango da bigarren blokerak pasatu lehenengoan parte hartu ez dutenentzat, eta horrela hurrenez hurren, salbuespenak salbuespen.

Jarduera guztietan protagonistak emakumeak izango dira, horregatik esan behar dutena entzuteko espazioak izango dira. Profesionalek, esperientzia izan arren, kontuan hartuko dute emakume horien egoera emakumeek beraiek ezagutzen dutela ondoen. Horrez gain, kontuan hartuko da emakume bakoitza ezberdina dela, eta baita bata eta bestearen esperientziak oso ezberdinak izan ahal direla. Emakumeak ahalduntzea lortzeko ezinbestekoa da emakumeei merezi duten espazioa ematea.

Azkenik, kontuan hartuko dira parte-hartzaileen gaitasunak, beraz, profesionalek aldaketak egin ahalko dituzte aurrean duten taldeari egokitzeko.

Metodologia hau jarraituko da aurrera eramango diren 9 jardueretan.

7. JARDUERAK

1. BLOKEA

Lehenengo jarduera: informazio batzarra

Helburuak:

- Emakumeek jasaten dituzten egoera asko indarkeria direla ulertzea.
- Pairatzen dituzten indarkeria mota ezberdinak zeintzuk diren ikastea.
- Pairatzen duten indarkeria detektatzen ikastea.
- Indarkeria prostituzioan aritzeagatiko ondorioa ez dela jakinaraztea.
- Emakumeak ahalduntzea bultzatzea.

Baliabideak

Emakumeentzat ezaguna eta eroso den espazio itxi bat, kriminologo edo psikologo bat.

Denbora

2 ordu

Jarduera

Jarduera honetan hainbat gaiei buruz hitz egingo da, indarkeriarekin harremana dutenak. Parte hartzea erabaki duten emakumeekin bilera bat egingo da. Horretan, profesional baten presentziaz, hainbat gai jorratuko dira:

Lehenik eta behin, indarkeria kontzeptua. Emakume bakoitzarentzat indarkeria zer den komentatuko da. Profesionalak, beharrezkoa ikusten badu, esku hartu ahalko du garrantzitsua den informazioa emateko.

Bigarrenik, prostituzioan aritzean eman daitezkeen, eta oharkabean pasatu ahal diren, indarkeria ezberdinei buruz hitz egingo da, adibide praktikoekin.

Azkenik, emakumeekin estigma landuko da. Atal honetan emakumeei eskatuko zaie haientzat prostituta izatea zer den, baina ez esperientziari buruz, baizik eta zer esan nahi duen, teorikoki, prostituta izatea. Hortik, profesionalaren laguntzaz, atera ahal diren aurreiritzeak landuko dira.

Jarduera osoan zehar emakumeak dira protagonistak, eta profesionalak ahalik eta gutxien parte hartzea bilatzen da.

Bigarren jarduera: tresnak eman

Helburuak

- Indarkeriari aurre egiteko tresna ezberdinak ematea.
- Indarkeriaren aurrean jardutea.
- Emakumeak ahalduntzea bultzatzea.

Baliabideak

Emakumeentzat ezaguna eta eroso den espazio itxi bat, kriminologo edo psikologo bat.

Denbora

2 ordu

Jarduera

Bilera bat egingo da emakumeekin eta profesionalarekin. Jarduera honetan prostituzioan aritzean pairatzen diren indarkeria ezberdinen aurrean erantzuteko era ezberdinei buruz

hitz egingo da. Garrantzitsua izango da profesionalak emakumeei hitz egiten ustea, eta parte hartzekotan, kontuan hartzea emakume horien errealitatea ez dela berea.

Hirugarren jarduera: bateratze-batzarra

Helburuak

- Emakumeak entzunak izateko espazio seguru bat eskaintzea.
- Besteen esperientzietatik ikastea.
- Emakumeen arteko solidaritatea lantzea.
- Bizi izan dutenarekiko, haien errugabetasuna ulertzea.
- Emakumeak ahalduntzea bultzatzea.

Baliabideak

Emakumeentzat ezaguna eta eroso den espazio itxi bat, kriminologo edo psikologo bat.

Denbora

Gehienez 2 ordu

Jarduera

Lehen blokeko azken jarduera honetan, aurreko bietan bezala, emakumeak izango dira figura aktiboena. Batzar moduko honetan bilatuko da emakumeak seguru eta eroso sentitzea haien esperientziak kontatzeko eta besteekin konpartitzeko. Horrez gain, profesionala batzar horretan egongo da, batez ere, bizi izandako esperientziei buruz senti dezaketen erruduntasunari buruz hitz egiteko, errudun ez direla jakinarazteko eta haien diskurtsoetan toleratzen dituzten indarkeriez kontzientziatzeko.

2. BLOKEA

Lehenengo jarduera: kontzientzia-kanpainak

Helburuak

- Emakumeek kanpainak zer diren jakitea.
- Emakumeek kontzientziazio-kanpainen helburuak ezagutzea.

- Haien paper aktiboa bultzatzea
- Emakumeak ahalduntzea bultzatzea.

Baliabideak

Emakumeentzat ezaguna eta eroso den espazio itxi bat, erakundeko profesionalak.

Denbora

2 ordu

Jarduera

Jarduera honetan erakundeko profesionalak, horrelako kanpainetan esperientzia dutenek, zertan datzaten azalduko diete emakumeei. Horrez gain, haiek kanpaina bat prestatzeko proposatuko zaie. Kasu honetan, emakumeek haien esperientzian oinarrituta, ikusi dituzten kanpaina ezberdinei buruz hitz egin ahalko dute, haien iritzia partekatuz.

Bigarren jarduera: kanpaina prestatzea

Helburuak

- Emakumeen jarrera aktiboa bultzatzea, bereziki indarkeriaren aurrean.
- Emakumeen ahalduntzea bultzatzea.

Baliabideak

Emakumeentzat ezaguna eta eroso den espazio itxi bat, erakundeko profesionalak, emakumeek erabaki duten kanpaina egiteko materiala.

Denbora

Gehienez 2 ordu

Jarduera

Jarduera honetan, emakumeek erabakitako eran (kartelak, pegatinak,...), kontzientzia-kanpaina bat prestatuko dute. Jarduera librea izango da, betiere errealista

den bitartean. Haien esku egongo da kanpaina aurrera eramatea, profesionalen laguntzareki.

Hirugarren jarduera: kanpaina kaleratzea

Helburuak

- Emakumeen jarrera aktiboa bultzatzea, bereziki indarkeriaren aurrean.
- Emakumeak ahalduntzea bultzatzea.
- Prostituzio klub eta pisuetan sartzen direnak emakumeenganako errespetuan kontzientziatu.
- Bai emakumeak eta baita klub eta pisuetan sartzen direnak indarkeria ezberdinak detektatzen laguntzea.
- Bai emakumeak eta baita klub eta pisuetara sartzen direnak prostituzioan aritzen diren emakumeek pairatzen duten indarkeriari aurka egitera bultzatzea.
- Klub eta pisuetara sartzen direnei emakumeak indarkeriaren aurrean jarrera aktiboa dutela erakustea.

Baliabideak

Emakumeak, aurrera eraman duten kanpainako materiala (kartelak, pegatinak...)

Denbora

2 ordu

Jarduera

Emakumeek bloke honetan prestatu duten kontzientzia-kanpaina egiteko materiala ezagutzen dituzten prostituzio klub eta pisuetara eramango dituzte horietan uzteko, horrela bertara sartzen direnak ikusi ahal izateko. Taldea bikote edo hirukotetan banatuko da eta bakoitzak erabakitzen lekura edo lekuetara eraman ahalko du prestatutako kanpaina. Emakumeek hala nahi izatekotan profesional batek lagunduko ditu.

3. BLOKEA

Lehenengo jarduera: hitzaldia prestatzea

Helburuak

- Emakumeen jarrera aktiboa bultzatzea, bereziki indarkeriaren aurrean.
- Emakumeak ahalduntzea bultzatzea.

Baliabideak

Emakumeentzat ezaguna eta eroso den espazio itxi bat, erakundeko profesionalak.

Denbora

2 ordu

Jarduera

Gela baten egingo da batzarra. Jarduera honetan, erakundeko profesionalek 3.blokeko helburu orokorra azlduko diete emakumeei, hau da, 16-18 bitarteko gazteentzat hitzaldi bat prestatu beharko dutela aurreko blokeetan landutakoarekin, gazteak kontzientziatzeko eta prostituzioan aritzen diren emakumeenganako errespetuan hezteko. Emakumeak hitzaldian sartu nahi dituzten ideiak pentsatzen hasi ahalko dira.

Bigarren jarduera: hitzaldia prestatu

Helburuak

- Emakumeen jarrera aktiboa bultzatzea, bereziki indarkeriaren aurrean.
- Emakumeak ahalduntzea bultzatzea.

Baliabideak

Emakumeentzat ezaguna eta eroso den espazio itxi bat, erakundeko profesionalak.

Denbora

2 ordu

Jarduera

Bilera bat egingo da emakumeekin eta profesionalekin. Jarduera honetan emakumeek hitzaldia prestatzen jarraituko dute. Profesionalak laguntzeko besterik ez dira egongo, eta behar izatekotan, bilera bideratzeko. Batzar honetan, eskola ezberdinekin edo aisialdi talde ezberdinekin kontaktuan jarri beharko dira, aurrera eramango duten hitzaldia azalduz eta haien gazteei egiteko baimena eskatuz.

Hirugarren jarduera:

Helburuak

- Emakumeen jarrera aktiboa bultzatzea, bereziki indarkeriaren aurrean.
- Emakumeak ahalduntzea bultzatzea.
- Gazteria prostituzioan aritzen diren emakumeenganako errespetuan hezte eta kontzientziatzea.
- Gazteriarik emakume horien errealitatea erakustea.
- Prostituzioaren gaiarekiko dagoen tabua apurtzea gazteriaren artean.

Baliabideak

16-18 urteko gazteak, erakundeko profesionalak.

Denbora

Gehienez 2 ordu

Jarduera

Emakumeak, binaka eta elkarteko profesional batez lagunduta, 16-18 urteko gazteengana joango dira, bai eskoletara edota adin horretako gazteak dauden aisialdi taldeetara, prestatu duten hitzaldia emateko.

8. BALIABIDEAK

Baliabide materialak:

- Espazio itxi bat
- Ordenagailuak

- Boligrafoak
- Kuadernoak

Giza baliabideak:

- Elkarteko profesionalak: psikologo edo kriminologoa, gizarte hezitzailea, ...

9. EBALUAKETA

